

ELKARRIZKETA: HIRONORI FUNAI • ESPERIENTZIA: BOZ GORA  
IRAKURTZEN ETA DEKLAMATZEN • GALDEIDAZUE: RAKEL DEL FRAGO  
ARBIZU • OIASSO MUSEOA • ATZEKO ATETIK: DJ. BULL

hh  
hik hasi

122

4 EURO • 2007KO AZAROA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



Irakasleen erretiroa  
Lekukoa belaunaldi berrien esku

# PiRRix eta PORRox

## Familiak milakolore

CD-Rom-ak berriak!



Familia eredu  
anitzak,  
maitasunaren  
loturak indartuta.

Puzzleak berriak!



Ipuinak



Karta jokoa



# aurkibidea



8  
gaia

## IRAKASLEEN ERRETIROA

Datozen urteetan irakasle askok hartuko du erretiroa eta etorriko den belaunaldi aldaketa horretan, irakasle beteteranoek bereganatutako ezagutza eta esperientzia ez galtzeko biderik onena topatu beharko da. Nola egin, ordea? Hortxe dago gakoa.



16  
elkarrizketa

## HIRONORI FUNAI

Gizarte modernoan jolas unibertsalak galtzeko arriskua dagoela dio irakasle japoniarrak. Urte asko daramatza haurren jolasak ikertzen eta atera dituen ondorioekin kezkatuta dago, haurrak gero eta gutxiago jolasten dutelako.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

IRAKASLEEN ERRETIROA. LEKUKOA  
BELAUNALDI BERRIEN ESKU

16 elkarrizketa

HIRONORI FUNAI

24 esperientzia

Boz gora irakurtzen eta deklamatzeko

Gasteizko Jesus Obrero BHI ikastetxea

26 ekarpena

Pauli Dávila

Hiri hezitzaileak. Hezkuntza inklusibotik hiri inklusibora

32 galdeidazue

Zer egin DBHn ikasteko gogorik ez dutenekin? Nola orientatu ikasle horiek? Nola saihestu eskola porrota?

Rakel del Frago Arbizu

35 berriak

40 nora joango gara?

Oiasso museoa

Erromatar hauek erotuta daude!

42 Atzeko atetik

Dj. Bull

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Olatz Lasagabaster. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANZA S.A.L. Azaleko irudia: Donostia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-X-24). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararaten ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

**HARPIDETZA SARIAK**  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## azaroa

### *Hainbatetan bezala, oraingoa ere une garrantzitsua da euskal hezkuntzarentzat*



**Berrikuntzak ez al du aurretik ongi egindakoetatik abiatu behar? Hori litzateke logikoa, ezta? Nola egin erretiratzera doazen irakasleen esperientzia eta jakinduria irakasle berriei transmititzeko?**

Ikasturte berrian bete-betean sartuak gaudenean ingurua behatzea besterik ez dago aurtengoa ere, ikasturte garrantzitsua dela ohartzeko.

Asko aldatzen ari da hezkuntza mundua. Herrien garapenak eta jendartearenak erronka berriei ongi erantzuteko egokitu beharra dago.

Euskalduntzea eskaintzen duten ikastetxeak gainezka daude. Herritarrek beren ondorengoek euskara ezagutzea nahi dute, euskara ezagutzeak ez baitakar berarekin inongo kalterik, aberastasun kulturala eta erraztasun kognitiboak baizik.

EAEn, hizkuntz ereduen garaia gainditu da. Nafarroan, euskaraz eskaintzen diren ikastetxeak gainezka daude, eta eskaintzen uzten ez dituzten zonaldeetan eskainiz gero erantzun onajaso lugetela adierazten dute datuek. Iparraldean, administrazioak euskararen zabalpenean lagundu beharrean trabak jartzeari ekiten dio, eta hala ere etengabe doa handitzen.

Euskal Herri osoan urrats berriak emateko garaian gaude, ezagutza denon eskura jartzeko eta erabilpena areagotzeko. Hortan, prestakuntzak, metodologiak eta bitartekoak ezinbestekoak dira aurkitzen ari garen hesiak gainditu ahal izateko.

Curriculumak aldatzen ari dira. Europako irizpideei jarraituz, egokitzen ari dira estatuak eta erkidegoak. Euskal curriculumak ate joka ari da, herri bezala dagokiguna askatasunez garatzeko bidean. Hizkuntzak bere kultura behar baitu elikagai eta besarkatzaile gisa.

Unibertsitatera ere aire berriak iritsi dira. Une ezinhobea dela deritzogu geure ikerketa, prestakuntza eta izaera propioa garatzeko euskal unibertsitatearen eraikuntzan.

Ahalegin horiek guztiak bere etekina eman dezaten, antolaketa egokia, funtzionamendu parte-hartzailea, herritarren beharren zerbitzura arituko den hezkuntza eta abar beharrezkoak dira. Hori da, hain zuzen, Euskal Herri-

ko Oinarrizko Hezkuntza Akordioak mahaigaineratzen duena.

Aurreko ikasturtean, akordio bera aurkeztu zuten eta ezagutaratze lana egin zuten. Ikasturte honetan, zabalpen lanean jarraitzeaz gain, heziguneen Elkargunea izango denaren diseinuan arituko dira.

Guztia aldatzen ari den honetan, dena hain azkar doanean, prestakuntzak izugarriko garrantzia hartzen du. Etengabeko prestakuntzan ongi aritzea ezinbestekoa bada, irakasle berrien hasierako prestakuntzan ongi asmatzea gako baliotsua da.

Aldaketak direla-eta, berrikuntzak ez al du orain arte ongi egindako oinarrietatik abiatu behar? Hori da logikoa, ezta? Utzi behar al ditugu erretirora besterik gabe pasatzen hain ezagupen handia eta lan on egin duen hainbat irakasle? Nola egin horiek metatutako esperientzia eta jakinduria irakasle berriei transmititzeko?

“Erronka handiek, neurri sakonak.”

# kronika

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Bigarren Hezkuntzarako eta Lanbide Heziketarako 614 lanpostu betetzeko LEPa deialdian egingo du azaroan. Hasieran 550 postu proposatu zituen baina CCOOrekin sinatutako hitzarmenera hurbiltze aldera, eskaintza handitu du. LAB, ELA eta STEE EILAS sindikatuek hainbat kritika egin dituzte prozedura horren aurrean. Izan ere, postu gutxiegi direla diote eta irakasle interinoen egoera hobetzea eta "sistema egonkortzea" nahi bada eskaintza handiagoa egin behar dela salatu dute. Bestalde, ez zaie denei Bigarren Hezkuntza Eskakizuna exijituko. Sindikatuen ustez, hau ez da hezkuntza sistema euskalduntzeko bidea eta atzerapausotzat hartu dute. Hizkuntz Eskubideen Behatokia arduradunek hutsune nabariena Lanbide Heziketan ematen dela diote: "Lanbide Heziketako hiru irakasletatik batek ez du klaseak euskaraz emateko gaitasunik behar".



## EAEko Curriculum berria eta Gorputz Hezkuntzako orduen murrizketa

Hezkuntza Sailak egin duen Curriculum berriak, hainbat aldaketa proposatzen ditu gorputz-hezkuntzaren irakasgaiari dagokionez. Gutxieneko orduak ezarri dira eta eskola bakoitzaren esku gelditzen da moldaketak egitea.

Orain arte, Lehen Hezkuntzan gorputz-hezkuntzari 2,5 ordu eskaini zaizkio eta Bigarren Hezkuntzan, ikasturte bakoitzean 2 ordu. Orain ordea, gutxieneko kopurua Lehen Hezkuntzan 1,5ekoa da eta Bigarren Hezkuntzan, lehen hiru urteetan 2 ordu eta laugarrenean bakarra. Hortaz, Lehen Hezkuntzan orduen % 40 eta Bigarren Hezkuntzan % 37 murriztu dira.

Irakasle, guraso eta zuzendariak kezkatuak agertu dira murrizketa horren aurrean. Soin Hezkuntza beste irakasgaiak bezain garrantzitsua dela diote, batez ere egungo pasibotasuna eta

gehiegizko pisua bezalako arazoaren aurrean.


Bada denbora gorputz-heziketako hainbat profesional kexatu direla, irakasgaiaren bazterketa salatuz: "Nazioarteko jarraibideak kontuan hartu behar harko lirarteke eta gorputz-hezkuntzaren ariketa eta garapen arautua bermatu". Horrez gain, lan etorkizuna ere jokoan dute, 600 lanpostu baino gehiago galtzeko arriskua aurreikusten baita.

Gorputz-hezkuntzako lizentziatuen elkargoak, abokatuei eskatu die curriculum dekretuaren aurkako helegitea jartzea, "ikasleen osasunari eraso" egitea leporatuz. Elkargoko idazkari Maria Jose Lagartosen ustetan honakoa ez da erabaki arina. Haurrak gero eta gutxiago ateratzen dira etxetik kalera eta gutxiago jolasten eta mugitzen dira. Horrek sortzen dituen arazoak kontuan izanik ez da egokiena murrizketa hori ematea.

Hezkuntza Sailak ere erantzun die kexa hauei. Curriculum berriak, gutxieneko ordutegia ezartzen duela dio, horiek finkatuz. "Dena den, ikastetxeek 5 ordu izango dituzte gutxieneko ordutegi hori handitzeko... Gorputz heziketa 2,5 orduak mantendu ahaliko dira eta hala erabakiz gero, ordutegi hori gainditu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin gauza bera gertatzen da". Hortaz, ikastetxe bakoitzaren esku gelditzen da ordu kopurua zehaztea.

## Solfeoa edo instrumentua ikasi baino garrantzitsuagoa da abesten hasia, dugun instrumentu naturalena txikitatik erabiltzen ikastea

Juanjo Mena



### Nafarroan eskola hastean gero eta gehiago dira D eredia hautatzen dutenak

Aurtengo datuei erreparatu gero, agerikoa da urteak pasa ahala eskolan D eredian izena ematen dutenak gero eta gehiago direla. Batxilergoan ikasleen % 24 matrikulatu da D eredian, DBHn % 23, LHn % 26 eta HHn % 28. A ereduak antzeko bilakaera izan du baina G ereduak oster, kontrakoa, Batxilergoan % 70, DBHn % 65, LHn % 47 eta HHn % 42. Datu hauek eman zituen Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariak.

Nafarroan ikasiko duten ikasleen kopurua igo egin da aurtan. Pasa den urtean baino 1.424 ikasle gehiago izango dira, 90.403 guztira. Datu orokorreari esker, D eredia 1,2 puntu jeitsi da eta G eredia 2,7 puntuz igo. Kontuan hartu behar dira, besteak beste igoera horretan zerikusia dutela emigrazioak eta Lanbide Heziketa kontuan hartze-

ak, (izan ere Lanbide Heziketan D ereduaren eskaintza urria da).

#### 0-3 zikloaren dekretua

Perez-Nievas-ek, bestalde, 0-3 hezkuntzaren eskaera osoa beteko duela esan du. Egun, 79 eskola eta 5000 haur daude 0-3 zikloan, eta espero dute 2008an beste 500 toki gehiago izatea. Helburu hori lortze aldera, atal berezi bat sortu dute Hezkuntza Departamentuan. Gainera, udalekin partzuergo bat osatzea pentsatzen ari dira, 0-3 hezkuntzaren inguruko gutzia kudeatzeko.

Irailaren bukaeran, Sortzen-Ikasbatuaz, LAB eta EILAS sindikatuek helegitea jarri zuten 0-3 ziklorako dekretuaren aurka. Haien ustez, Nafarroako dekretuak ez du bat egiten Espainiako Gobernuak onartutako LOEekin. Izan ere, LOE izaera hezitzailea ematen dio 0-3 ziklo osoari. Dekretu horretan oster, bi motatako zerbitzuak desberdintzen dira. Alde batetik, izaera hezitzailea dutenak, eta bestetik, bestelako zerbitzuak, aisialdiarekin lotzen dituenak. Plataformaren ustetan bereizketa horrek LOEren kontra egiten du. "Bereizketa horren bidez, gainera, dekretuak ez du bermatzen 0-3 zikloa beti baldintza egokietan eskaintzea".

Herriartasunerako heziketa ikasgaiaren harira, kontzientzia eragozpena egiteko asmoa adierazi diote Nafarroako 100 gurasok Hezkuntza

Departamentuari. Iruñea,

Tutera, Azkoien, Cascante eta Monteagudoko 18 ikastetxetako gurasoak egin dira kontzientzia

eragozle. "Gurasoak gure seme-alaba eta hezkuntza

askatasunaren defentsan

elkartuko gara", esan zuen

Teresa Jaurrieta Askatasunean Hezi Nafarroako elkarte

koordinatzaileak.

"Administrazioak konstituzioak jasotzen dituen eskubideen

araberako heziketa galarazi nahi digu, eta, gainera,

kontzientzia eragozpena gure eskubidea da", gaineratu zuen.

Jaurrietaren arabera, ikasgai hori euren sinesmen

antropologikoen, etikoaren eta moralen aurka doa, ideologia

zehatz bat sortuz: "Guraso guztiak, ideologia batekoak

izan edo besteak, bat gatz gure seme-alabak guk hezten

ditugula esatean".

# GAIA

## Irakasleen erretiroa

*Lekukoa belaunaldi berrien esku*







## Eskualdatzea era egokian egiteko formularen bila

Urte gutxiren buruan irakasle askok hartuko dute erretiroa eta horrek arazoak eragin ditzake, hutsik geratuko diren lanpostu guztiak betetzeko lanak izan daitezkeelako eta profesional askok irakaskuntza utzi eta belaunaldi salto horretan, ezagutza eta esperientzia handia gal daitezkeelako.

Zein da egoerari aurre egiteko erarik egokiena? Irakasle beteranoek hasi berriekin denboraldi bat eginez, euren ezagutza eta esperientziaren berri emateko aukera izatea egokiena litzatekeela dio askok, urteetan zehar bildutako aberastasunaren zati bat behintzat ikastetxean gera dadin. Dena ikusteke dago, baina egoera nolakoa izango denaren irudikapena egin dezakegu esku artean ditugun datuak aztertuz gero.

# G

Datozen hamar urteetan belaunaldi aldaketa garrantzitsua gertatuko da gure ikastetxeetan. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan geratuko dira lanpostu gehien hutsik. Nafarroa Garaian aldaketa ez da hainbestearinokoa izango eta Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ez da halako arazorik gertatuko. Irakasle gazteak dituzte ikastetxe gehienetan eta belaunaldi aldaketa hori progresiboki egingo da, orain arte bezala, bat-batekoa izan gabe.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan aldiz, 6.000 irakasle inguruk hartuko du erretiroa datozen hamar urteetan irakaskuntza publikoan eta irakaskuntza pribatuko eta ikastetxe kontzertatuetako profesionalak kontuan hartuz gero, kopuru hori bider 1,7 egin beharko genuke. Hau da, 10.000 lanpostu baino gehiago geratuko dira hutsik, zehazki 10.200 datu horien arabera. Milaka lanpostu bete beharko dira beraz, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baina baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edota Lanbide Heziketan ere.

Eta horrekin batera bada beste erronka bat: izan ere irakasleak beharko dira, baina ez hori bakarrik, irakasle euskaldunak beharko dira. Gasteizko Legebiltzarrak 1982an onartu zuen Euskararen Legeak, bere 19. artikuluan

unibersitateari erronka jarri zion bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelera) irakasteko gai izango ziren maisu-maistrak trebatzeko. 25 urteren ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateak ez du baldintza hori betetzen: ikasleen % 40 inguruk irakasle ikasketak gaztelera hutsean egiten ditu eta ez dira euskaraz irakasteko gai.

Aldaketa dator urte gutxiren buruan eta horren aurrean galdera asko sortzen dira. Irakasle nahikoa izango al da? Administrazioak erraztuko al ditu halako trantsizio prozesuak egiteko moduak?

### Sindikatuaren kezka

Sindikatuak ere kezka horiek eta galdera horiek dituzte buruan bueltaka. Halaxe adierazi digute LAB eta S-TEE-EILAS sindikatuak.

LABeko Jon Urrusolori kezkarria iruditzen zaio lekuko hori hartzeko nahikoa irakasle ezizateko aukera egoeta. Bere ustez, administrazioak karpaina egin beharko luke jendeak irakasle lanbidea har dezan. Adibidez, Haur Eskolen Patzuergoan arazoak dituzte zerrendak osatzeko gaur egun. Irakaskuntzaren kudeaketan aldaketak egitea beharrezko ikusten du Urrusolori, kalitate enplegua bermatzeko. Ordezkapenak egiten dituztenei, esate baterako, urte beteko kontratua egin beharko litzatekeela uste du, ordezkapen ezberdinak egiteko, baina ikasturte osoan zehar lana egiteko aukera izango dutela ziurtatuz.

Nafarroan egoera ez da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bezain gordina. Azken urteetan oposaketak izan dira eta irakasle postu dezente bete da. Dena den, 60 urtez gorako 400 irakasle baino gehiago daude, 50-60 urte bitartean ere, kopuru altu samarra eta gehienak 40-50 urte bitartekoak dira. Arazoa da, orain erretiroa hartzen dutenak perfil



# Urte gutxi barru lanpostu asko hutsik



gabekoak direla, D ereduazabaldur-rekoak, eta orain perfila eskatu beharko litzatekeela uste du Mikel Lakasta, LAB sindikatuko kideak. Nafarroan gainera, irakasle guztiak ez daude erretiroa hartzeko baldintza berdinetan. Iruñeako udal eskoletako langileek esaterako, arazoak dituzte erretiroa hartzeko: duela hiru urte arte Iruñeako udaleko langileak izan dira, baina Nafarroako

Gobernuko langileak izatera pasa ziren. Orain, Nafarroako funtzionarioak dira, baina ez estatukoak eta orduan, ezin diete espainiar araudia aplikatu. Arazo hori konpontzeko dute oraindik.

Egoera horren aurrean zer egin?

Sindikatuak finean eskatzen dutena da, irakasle berriak poliki-poliki sar-

tzea eta lanordu osoz ez egon arren, irakasle beteranoei erretiroa hartzeko garaia heltzerako orduan, belaunaldien arteko erreleboa egina egotea. Horixe aipatu digu STEE-EILAS sindikatuko Jon Moñux-ek: "Datuak oso deigarriak dira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 2-18 urte bitarteko irakaskuntzan 50-54 urte bitarteko irakasle funtzionarioak 3.285 dira, 20.000 langilek osatzen duten kolektibotik. 55-59 urte bitartekoak, 1.894. Guztira 5.179 dira. Laboralen artean, kopuruak txikiagoak dira, baina ehunekoak berdinak edo gehiago. Beraz, funtzionarioen eta laborean artean, 2006ko irailean, 5.320 ziren. Horrek esan nahi du langileen % 25ean gabiltzala gutxi gora behera. Egiturazko arazoa da, argi eta garbi. Gainera, horri gehitu behar zaio 60 edo 60 urtetik gorako irakasleak, beste 364 direla. Beraz, 50-60 adin tartean eta 60 urtetik gorakoan artean, ia 6.000 irakasle ditugu. Ikasketxe kontzertatuetan egoera ez da hain gordina, baina hala ere badira adin tarte horietan dauden irakasleak".

Moñux-ek esan digunez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 55 urtetik gora-

## Mentoringa izan daiteke irtenbidea

Zer da mentoringa? Mentoringa era errazean ulertzeko, tutoretza antzeko bat da. Mentoreak, irakaskuntza arloa eta kasu zehatz honetara ekarrita, zera litzateke: irakasle beteranoak, irakasle berriari bere esperientzia transmititzea, berekin tutoretza lan moduko bat eginez. Mentorea eta irakasle berria elkarrekin arituko lirateke lanean eta mentoreak bere esperientzia eta ezagutza transmitituko lioke kasu honetan irakasle berriari, azken hori profesional gisa aberas dadin. Horrela, irakasle berriak prestatuta egongo dira beraien zeregin berriei aurre egiteko eta aurrekoek eskuratutako esperientzia eta ezagutza ez dira ahaztuta geratuko.

Mentoring izenaren jatorria greziar mitologian topa dezakegu. Mentor Ulisesen lagun mina zen eta Troyarantz abiatu aurretik, Ulisesek eskaera egin zion bere seme Telemaco zain eta presta zezan, Itacako errege gisa bere ondorengoa izateko. Mentorrek aita, aholkulari eta eredu lanak egin behar izan zituen Telemaco errege jakintsu, on eta zentzuduna bihurtzeko.



ko 10 irakasle baino gehiago dituzten 39 ikastetxe daude. Orain olatu txikia dena, urte gutxiren buruan tsunami bihurtuko dela dio. Tamaina ertaineko ikastetxe batean, 40-50 irakasle dituen ikastetxean, urtero bizpauru irakasle erretiratzea irensgarria da eta prozesu natural gisa eraman daiteke, baina zortzi edo hamar baldin badura, arazoa sortzen dela uste du.

Sindikatuak egiturazko arazo honi

aurre egin behar zitzaiola planteatu zutela dio, neurri zehatzak planteatu zizutela eta horien artean nagusiena 55 urtetik gorakoei lanordua gutxitu gabe, ikastordua gutxitzea zela, horrela betereanoen irteera eta berrien sarrera era mailakatuan egiteko. "Gure ustez Hezkuntza Sailak ez zion arazo larri horri behar bezala heldu eta aitzakia gisa jarri zuten ez dela jende nahikorik errelebo hori egiteko, baina gure susmoa da horren atzean aurrekontu arazo bat dagoela, inbertsio handia behar delako", dio Moñuxek.

Erretiroa hartzeko bidean dauden irakasleek esperientzia handia dute, al-daketa eta berrikuntza pedagogiko garrantzitsuak bultzatu dituzte eta jende horrek modu gradualean utzi beharko lituzke eskolak. Irakasle berriekin ikastetxean bertan, aurrez-aurreko harremana izan beharko luketela uste dute sindikatuek. Irakasle betereanoek perspektiba historikoa dute eta erreferente horiek izatea oso aberasgarria da gazteentzat.



### Erretiroa hartzeko era ezberdinak

Hego Euskal Herrian lanean diharduten irakasleek erretiroa hartzeko aukera ezberdinak dituzte.

Eremu pribatuan, errelebo-kontratua delakoa dago indarrean eta 60 urterekin % 85ean erretiroa hartu eta % 15 lanean jarrai dezakete. Espainiako gobernuak legea aldatu nahi du hala ere, eta 61 urtetan jari nahi du muga hori. Bestela ere har daiteke erretiroa 65 urte bete aurretik baina urte bakoitzeko sariaren % 8 kentzen dute eta gainera 1.967 urtea baino lehen kotizaziorik izan behar da.

Eremu publikoan, % 98 funtzionarioak dira eta kasu horretan, 60 urterekin erretiroa hartzean, gobernuak 65 bete arte falta-kontratekin bost urte horiek "oparitu" egiten ditu. Bestalde, 30 urte baino gehiago kotizatuak izanez gero, 18 hileko soldata ematen dute erretiroa hartzeko mementoan bertan. Gainerakoa, % 2, laboralak dira eta hauen kasuan, eremu pribatuan ezartzen diren baldintzak ezartzen dira.

Gauzak horrela daude gaur egun, baina legeak aldatzen den neurrian aldatuko dira baldintza hauek guztiak.

# Urte gutxi barru lanpostu asko hutsik

## Datuek ez diote gezurrik

Egoera zertan den ikusteko, datuak begien aurrean edukitzea bezalakorik ez da. Ondoren ikus ditzakezuen bi taulek biltzen dituzten datuak egoera nolakoa den ikusteko lagungarri izan daitezke. Araba, Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan irakasleek duten adinari buruzko datuak dira guztiak. Ikus dezakezuenenez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ia 9.000 irakaslek dute 51 urte baino gehiago, Nafarroan, 50 urtetik gorako irakasleen kopurua askoz ere baxuagoa da, baina 2.500dik gorakoa da, hala ere. Datu hauen arabera, datozen hamar urteotan 10.000 irakasle baino gehiago erretiroa hartzeko moduan izango dira Hego Euskal Herrian.



ADINA	IKASTETXE PUBLIKOAK	IKASTETXE PRIBATUAK	GUZTIAK
<30	60	1.654	1.714
31-35	251	1.889	2.140
36-40	876	2.197	3.073
41-45	4.059	2.574	6.633
46-50	5.181	2.039	7.220
51-55	3.263	1.421	4.684
56-60	1.944	1.048	2.992
>60	431	490	921
DATURIK EZ	-	276	276
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.065</b>	<b>13.588</b>	<b>29.653</b>

Taula honetan ikus daitezkeen datuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuak dira Euskadiko Eskola Kontseiluak 2007ko martxoan argitaratutakoak.



ADINA	IKASTETXE PUBLIKOAK					
	HH-LH	DBH	LANBIDE HEZIKETA	DBH*	BESTEAK	GUZTIRA
<40	1.221	473	102	64	177	<b>2.037</b>
40-50	917	850	180	126	377	<b>2.450</b>
50-55	510	326	46	105	213	<b>1.191</b>
55-60	359	230	28	83	143	<b>843</b>
60>	193	145	23	47	87	<b>495</b>

Taula honetan ikus daitezkeen datuak Nafarroako ikastetxe publikoetako datuak dira. DBH\* moduan agertzen diren datuek eskolan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eman arren, lizentziaturik ez dauden irakasleei dagozkie. Duten titulazioaren arabera, maisu-maistrak direnei, alegia.



# Irakasleen ikuspuntua

## Unibertsitatea ere martxan

Unibertsitatek ere ikusi dute erretiro kopuru handi honek eragina izan dezakeela irakaskuntzan eta gaia aztertzen ari dira. Aldaketak izango dira datozen urteetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako irakasle eskoletan eta bertako zenbait irakasle eskolek eta Eusko Jaurlaritzak horiek guztiak lantzeko foroa eratu dute. Ikasketen erreformaren gaia lantzen ari dira funtsean, baina erretiroen gaiarekin egin dute topo horretan ari zirela eta horri aurre egiteko bitartekoak jartzea beharrezkoa ikusten dute unibertsitatek.

Irakasle eskoletako ikasketa plangintzen berrikuntza da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bost irakasle eskolek (Euskal Herriko Unibertsitateak hiru herrialdeotan dituenak, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea eta Begoñako Andra Mari irakasle eskola) eta Eusko Jaurlaritzak osatu duten foroaren aztergaia baina horren baitan, erretiroen gaia ere lantzen ari dira.

Luis Mari Elizalde Donostiako irakasle eskolako irakasleak azaldu digu zeintzuk diren beraien kezkak etorkizunari begira. Gaur egun indarrean dauden ikasketa planak duela 20 bat urte egin ziren, geroztik gauza asko aldatu da hezkuntza sisteman eta titulu horiek berritzeko garaia iritsi da. “Europatik datorren olatuaren eraginez gure ikasketak hiru urtekoak izatetik lau urtekoak izatera pasako dira. Hori aukera bat da guretzat. Ikasketak berri eta formatu berrietara egokitu behar zirela ikusita, edukien aldetik zer aldatu beharko genukeen ikusi genuen. Horretan genbiltzala, titulu bakoitzean eta perfil bakoitzean zenbat irakasle beharko diren atera zen, arazo gisa ikusten baita urte gutxi berru langileen ehuneko handi bat berri beharra. Irakasle asko sartu zen duela 25-30 urte sisteman eta horiek erretiratzeko bidean daude. Beraz, irakasle asko kualifikatu behar ditugu eta gainera, perfil jakin batzuetan”, dio Elizaldek.

Beteranoak eta hasiberriak

Urte gutxiren buruan milaka irakasleren beharra izango da eta horrek kuantitatiboki arazoa ekarriko duela uste du Elizaldek. Baina hori baino okerragoa iruditzen zaio klaustroa deskapitalizatu egingo dela: “Eskolan lidergo pedagogikoa eta berrikuntza askotan aritutako jendea da, ikastolak sortu zituzten eta urte haien hasieran aritu zen jende askok hartuko du erretiroa. Horiek bandera garrantzitsua izan dute, egitasmo horien jabeak eta motorra izan dira. Erretiratzeko direnean, erreferentziarik gabeko jendea sartuko da, esperientzia gutxikoa eta beste eskema batetik, beste heziketa sistema batetik, beste uste batzuetatik... Horrek krisialdia sortuko du sisteman, ikastetxe guztietan. Nik uste dut horri beldurra zaio, ez delako ikusten nola helduko zaion.

Gaur egungo beteranoek paper garrantzitsua beteko dute prozesu horretan Elizalderen iritziz. Hasiberriek ez dituztelako beteranoek dituzten erreferente eta identifikazio prozesu guztiak eta lan handia egin beharko dela eta administrazioak horretarako baldintzak sortu beharko dituela dio: “Ez dakit pertsona horiek liberatu beharko dituen, baina gazte hasiberrien mentore edo tutore lanak egitea izango da beraien zeregin nagusietako bat. Lider izan beharko dute eta urte askotan naturalki gertatu den prozesua sistematzat egin beharko da, bat-batean jende



asko sartuko delako. Uste dut irakasle berrien txertatze prozesu horretan erroka oso polita dugula”.

Mentoring prozesu horiek egitea, irakasleak orain arte bezala ez ibiltzea eskatuko du Elizalderen arabera: “Horrek eskatuko du irakasleak orain bezala ez ibiltzea, 5-6-7 urtez ordezkapenak egiten toki askotan, inorekin identifikatu ezinik, zuloak betetzen... Hasiberriei pare bat urteko egonaldia bermatu beharko litzaizkieke ikastetxearen martxa hartu eta proiektuaren gora behar ezagutu eta sakonago lan egiteko, eta beteranoen baldintzak horretara bideratu beharko lirarteke. Ikastetxe bakoitzak harrera sistematizatu beharko luke, irakasle berrien baldintzak egokituz, egonkortuz... Mentore edo beteranoekin lanean jarri beharko lirarteke mintegi egonkor batzuk antolatuta, lanean bertan treba daitezen”.

Irakasle nahikoa izango ote da?

Belaunaldi aldaketa hori egiteko irakasle nahikoa izango dela uste du Elizaldek, besteak beste, irakasle eskoletan kupoak urtero betetzen direlako. Kantitatean baino, erroka kualitatean dutela uste du Elizaldek: “Kualitatiboki eskatzen zaigu aldaketa eta urrats izugarria egin behar dugu. Azken urte hauetan sistemak urrats handia egin du berrikuntza alorrean eta gu atzean gertatu gara. Ikasketa berriak garai berrietara egokitu beharko ditugu”.



## Usurbilgo Udarregi ikastolaren esperientzia

Usurbilgo Udarregi ikastolan hasiak dira horrelako trantsizio prozesuak egiten. Erretiroa hartzekotan zeuden irakasleak, irakasle berriekin denbora batez egotea komenigarria izan zitekeela pentsatu zuten. Pentsatu eta egin. Aukerarik izanez gero, behintzat, horrela egiten dute lan eta eskualdatze prozesuak irauten duen bitartean, irakasle berriak ikastolako martxa hartzen doaz. Maria-je Imaz, Udarregi ikastolako zuzendariak eman digu Usurbilgo esperientziaren berri.

Irakasle asko ari al dira erretiroa hartzeko adinera iristen Udarregi ikastolan?

Bai, badira batzuk, izan ere, langileen batzuetan besteko adina 40 urtetik gorakoa da. 55 irakasle ditugu ikastolan eta horietatik 18, 50 urteko mugan eta horitik gorra gaude. Egoera horrekin kezkatu egin gara, izan ere, jende berria sartzea berrikuntza bideratzeko aukera ona izan daiteke, baina irakasle beterranoen esperientzia oso baliagarria da. Eta horiek ikastolen hezkuntza ondarea transmititzeko lanean, zeregin garrantzitsua dute.

Hori dela eta, irakasle berriak kontratatzen ditugunean, ikastolen hezkuntza proiektuarekin sentsibilizazio edo atxikimendua azaltzen duten pertsonak izan daitezten saiatzen gara. Zentzu horretan, ikastolak irakasleen formaziorako apustu handia egin du, ikastolaren hezkuntza proiektuan aurrera egiteko ezinbesteko tresna dela ikusten dugulako.

Urteko kudeaketa planaren gidioan lehentasunezko helburu batzuk jartzen ditugu. Alde batetik, irakasleen

artean formazio jarduerak eta mintegiak sustatzea. Urte horretan irakasle berriak hartu baditugu eta ikastoletako dinamikarekiko atxikimendua lortzea interesatzen bazaigu, beraiek ere horrelakoetan parte hartzea bultzatzen dugu. Horrek ikastola barneko dinamikan azkarrago txertatzen laguntzen die, ziklo baten baitan dauden proiektuak ezagutzeko aukera dute eta ikastolen mugimendurekin zerikusia duen formazioa jasotzeko aukera dute.

Zein da Udarregi ikastolaren egoera egun?

Irakasle batzuk erretiroa hartzen ari dira. Azken urteetan badira bost, sei, zazpi irakasle errelebo kontratuarekin eta horien ordezkioak hartzeko garaiak ikastolarekin lotura izan duen pertsonak hartzen saiatzen gara pentsatzen dugulako modu horretan errazago lortzen dela proiektuari jarraipena ematea, berritzea eta sortzen diren arazoei erantzuna ematea.

Trasmisio hori egitea garrantzitsua da eta ongi legoke ateratzen den irakasleak eta sartzen denak aukera izatea arte batean elkarrekin aritzeko, sei hilabatez edo urte betez. Baina, jakina, horretarako baliabideak behar dira.

Hemen egin duzue hori...

Bai. Arazorik ez bada eta egingarria baldin bada, denboraldi batez erretiroa hartuko duen irakaslea eta irakasle berria elkarrekin egon daitezten saiatzen gara, gelan egon daitezten eta irakasle berriak lagun diezaion taldea eramaten, bestela talde batean bat-batean sartu eta galduta sentitzen zara. Urrian adi-

bidez, ikastolako irakasle batek erretiroa hartu du eta ikasturte hasieratik pertsona bat egon da berarekin. Gure ikasle ohia da, praktikak ere ikastolan egin zituen eta ikastolako mugimendua eta dinamika ezagunak zituen. Irailetik hona elkarrekin egon dira, taldearekin, eta pixkanaka joan dira eskualdatze hori egiten. Hasieran irakasleak zuen gidaritza, pixkanaka berriari gero eta gauza gehiago egiten utzi dio, bileretan ere parte hartzen zuen, lan taldeetan ere bai... Horrela, haurrek ere ezagutu dute, Haur Hezkuntzako taldea da eta beraientzat aldaketa ez da hain handia izan. Oso esperientzia ona izan da. Hasieran adibidez, irakaslea aurretik joaten zen, taldea ondoren eta atzetik irakasle berria eta ondoren, aldatu egin zuten nolabait adieraziz irakaslea aurrekoa zela eta horrela, irakasleak bisualki ohitzen joan dira. Etorri berriarentzat ere garrantzitsua da babes hori izatea.

Beste kasu batean, irakasle bat lanaldi erdian ari da eta beste erdia bere ordezkioa izango denak egiten du. Eta batzuetan, erretiroa hartzen duten irakasleek ere laguntzen digute. Adibidez irteeretan edo zerbaiterako pertsona gehiago behar ditugunean, laguntzeko prest egoten dira. Hori ere polita da, ikastolarekin duten harremana ez dute lako guztiz apurtzen. Batzuek erretiroa hartu eta gustura geratzen dira baina beste batzuei bat-bateko eten hori gogorra egiten zaie eta gustuko dute beraiek kontuan hartzea.




# hironori funai

## ELKARRIZKETA

Japoniako Nagoya Kezai Unibertsitateko irakaslea

// Gizarte modernoan jolas  
unibertsalak galtzeko  
arriskua dago //





# hironori funai

# E

**// Erdi Aroan jolasak naturalak, gordinak ziren, eta horrek esan nahi du une batzuk arriskutsuak zirela, beste batzuk zikinak, beste batzuk gatazkatsuak... Memento horiek esperimentatu egin behar ditugu. Elementu horiek jolasetik ateratzea ez da errealia, eta esperimentatu ez duten helduak prestatzen ditu. Nik jolasaren alderdi errealia mantentzea nahi dut.**

**//**

Lizentziatu zenetik eskolak ematen dihardu Hironori Funai Nagoya Keizai Unibertsitatean. Baina eskolak emateaz gain, ikerketa du gustuko. Urte dezente daramatza haurren jolasak ikertzen: gaur egungo haurrek zein jolas praktikatzen dituzten, nola jolasten diren, zertan jolasten diren, zein diren jolasten eta dibertitzen diren gorputzen ezaugarriak...

Atera dituen emaitza eta ondorioekin kezkatuta dago, zenbait jolas unibertsal galtzeko arriskua ikusten duelako eta haurrak gero eta gutxiago jolasten direlako.

Japoniako nahiz mundu osoko jolasak aztertu eta konparatu izan ditu. Eta horien artean euskal pilota izugarri gustatzen zaio. Duela 15 urte hizkuntzalari alemaniar ospetsu batek tenisari buruzko liburua idatzi zuen, eta han irakurri zituen euskal pilotari buruzko lehen erreferentziak. Oso interesgarria iruditu zitzaion, geroztik euskal pilota ezagutzeko kuriositatea eta irrika zituen, eta bere ametsa bete da. EHUK eta Japoniako Kobeko Atzerriko Ikasketen Udako Unibertsitateak Gasteizen antolatutako mintegietan parte hartu du, eta bidaia aprobetxatu du euskal pilota ezagutzeko. Pozik doa bueltan Japoniara.



**Mendebaldeko eta Ekialdeko haurren jolasak konparatu izan dituzu. Erraza al da konparazioa egitea? Zein tresna erabiltzen da horretarako?**

Bi eredu edo taula erabiltzen dira. Bata Pieter Brueghel-en taula da, 1560. urtean egin zuena. Taula hori Anberesen egin zuen, Flandesen, urtebetean haurren jolasak aztertu ondoren. Bertan, 250 haur agertzen dira 91 jolasetara jolasten. Jolasen entziklopediatzat hartzen da Brueghelen taula. Eta beste erreferentzia Kin Sakai japoniarrak egindako taula da. Edoen garaiko edo garai zaharreko jolasak biltzen dira bertan. Beraz, taula biak garai bertsukoak direnez, egokiak dira konparazioak egiteko.

**Eta Ekialdeko eta Mendebaldeko haurrak jolas berdinetara jolasten al dira?**

Jolas batzuk berdina dira, eta beste batzuk ez. Denetik dago.

**Aipa iezazkiguzu berdina diren jolas batzuk.**

Bat zabuaren jolasa da. Brueghelen taulan leihotako bat ikusten da, eta bertan haur bat zabua ikusten da. Zabua etxearen barruan dago eta badirudi hori normala zela Flandesen. Japonian, osteratzen, zabuak kanpoan egon ohiziren. Bestela, itxura aldetik zabuak antzekoak dira, arruntak, bi sokekin eutsitakoak.

Beste jolas komun bat zibarena da. Brueghelen taulan arkupe batean ikusten dira haurrak zibarekin jolasean. Bi ziba mota ikusten dira. Japonian ere jatorri zaharra du zibak. VII. mendetik X. mendera bitartean baziren jada egurrezko zibak. Badirudi zibarekin hel-



duak jolasten zirela batik bat, baina XIX. mendeko literaturan haurrak ere jolasten zirela ageri da.

Hirugarren bat akuilu-makuluen jolasa izan daiteke. Ekialdean zein Mendebaldean erabiltzen ziren, baina forma desberdina zuten. Mendebaldean besapetik heltzen zitzairen, eta Japonian eskuekin. Hankak jartzeko modua ere desberdina zen bietan.

### **Japonian dagoen eta Mendebaldean ez dagoen jolasen bat aipatuko al diguzu?**

Bai, kometa izan daiteke. Japonian aspalditik erabiltzen zuten kometa. Europan, aldiz, XVI. mendean sartu ziren Asiako kometak edo kometa planoak. Brueghelek XVI. mendean taula margotu zuenean ez zuen kometarik marraztu. Oraindik Flandesera iritsi gabe zegoela uste da.

### **Eta alderantziz, hemen bai eta Japonian existitzen ez den jolasen bat?**

Maskuria. Brueghelen taulan emakume bat animalia baten maskuria puz-

ten ikusten da. Europan animaliak sakrifikatu egiten ziren negua hasi aurretik, eta hainbat modutara kontserbatzen ziren: gazituta, airean... Maskuria aleak gordetzeko erabiltzen zen, baina batzuetan haurrei jostailu moduan ematen zitzairen. Modu horretan, animalien maskuria jostailu bihurtu zen haurrentzat.

Japonian, ordea, budismoaren eragina oso indartsua da, eta garai modernoaren aurretik ez ziren animaliak jaten eta sakrifikatzen. Horregatik ez zen posible haur japoniarrek maskuria jostailu moduan edukitzea.

### **Jolas batzuk unibertsalak dira, eta beste batzuk ez. Non dago muga?**

Haurren jolas batzuk harreman zuzena dute kulturarekin eta inguruarekin; horri lotuta daude. Beste batzuk, ordea, garai, ingurune eta lagunak aldatu arren, ez dira aldatzen, faktore horiekiko independenteak dira. Modak gainditu dituzten jolasak dira. Horiei deitzen zaie jolas unibertsalak. Badirudi jolas unibertsalak galtzen ari direla aldaketa modernoengatik, hau

da, egungo gizarteak jolas horiek ematen zituzten hainbat faktore soziologiko eta fisiko kendu egin dituelako.

### **Orduan, jolas unibertsalak galtzeko arriskua ikusten duzu?**

Bai. Garai moderno hauetan zaila da haurrak Erdi Aroan bezainbeste jolasten ikustea. Zoritzarrez gero eta haur gutxiago ikusten dira jolasten, dibertitzen, mugitzen... Yokohaman, Japoniako bigarren hiruburu handienean, egindako ikerketa baten arabera, ikusi da 50 urtean haurrak jolasten ziren espazioa % 4 murriztu dela. Murrizketa horrek aldarazi ditu jolasteko moduak. 1955ean haurrak hiru ordu jolasten ziren kanpoan, eta 1991n, ordubete baino gutxiago. 1955ean barruan bi ordu baino gutxiago jolasten ziren, eta 1991n, berriz, lau ordu. Kanpoko jolasetatik barrukoetarako aldaketa gertatu da. Gaur egun pantailako jolasetara jolasten dira haurrak: telebista ikusten edo bideo kontsolekin jolasten pasatzen dute denbora.

Lehen aipatu ditudan jolasak ere adibide garbiak dira. Zabuaeren ka-

# hironori funai

E

// **Haurrei  
jolasa, mugimendua  
eta adierazpena  
murrizten zaienean,  
erreakzionatzeko  
modua aldatu egiten  
zaie: pazientzia  
gutxiago dute,  
eztabaida eta  
gatazka egoeretan  
indarkeriarekin  
erreakzionatzen  
dute...**

//



suan,  
gaur egun era-  
bilera murrizten ari da arriskutsua izan daitekeelako, eta zenbait lekutan za-  
buak kentzen ari dira. Horren ondo-  
rioz, segurtasun neurriengatik, haurrei  
gustatzen zaien jolas bat desagertzen a-  
ri da. Jolasten eta dibertitzen den hau-  
rren gorputza helduek inposatzen di-  
tuzten legeengatik sakrifikatzen da.

Zibaren kasuan, haurrek eragiten  
zioten zibari lehen, eta beraiek ziren  
birak ematen ikasten zutenak. Gaur  
egun, ordea, zibek mekanismo baten  
bitartez ematen dituzte birak, eta ez

dituzte haurrek jartzen biraka, ez dute  
arte hori ikasten.

Akuilu-makuluei dagokienez, Ja-  
ponian 1982. urtera arte oso normala  
zen hauek ikustea leku zehatz batean:  
bi irlen artean. Haurrek, itsasbehera ze-  
goenean, akuilu-makuiluak erabiltzen  
zituzten eskolara joateko. 1982an erre-  
pide bat egin zuten bi irlak lotzeko, eta  
geroztik haurrek ez dute akuilu-ma-  
kuluen beharrik.

## **Garrantzitsutzat jotzen al duzu galtzen ari diren jolas unibertsal horiek berreskuratzea?**

Bai, nik garrantzi handia ematen  
diot horri, nahiz eta jarraitzaile asko ez  
ditudan. Gaur egun, garai moderno  
hauetan, jolasaren helburua ez da di-  
bertitzea, baizik eta haurrak heldu  
bihurtzea, heztea, hori da jolasaren  
helburua. Hori da Erdi Aroko eta gaur  
egungo jolasen arteko desberdintasu-  
nik nabarientakoa bat.

Erdi Aroan jolasak naturalak, gordi-  
nak ziren, eta horrek esan nahi du une





Horrek prestakuntza eskatzen du, eta horrekin batera baliabide ekonomikoak, materiala erosteko.

### Gaur egun, ba al daude "jolasten ez dakiten" edo "jolasten ez diren" haurrak?

Bai, Japonian behintzat ikusi dut hori. 1970az geroztik Japonia osoan, ez toki zehatz batean, "jolasten ez dakiten" edo "jolasten ez diren" haurrak agertzen hasi dira. Haurrek ez dakite nola jolastu, ez dakite jolasten. Oro har, ez dira kanpoan jolasten. Denak pantailako jolasetara jolasten dira. Bizioa dute makinekin eta ordenagailuko jolasekin, eta ez dituzte lagunarteko jolasak ezagutzen.

### Zerk ekarri du aldaketa hori? Bizimodu modernoak?

Motiboetako bat jolasteko espazioak murriztu izana da. Egin diren eraikinetatik eta urbanizazio motengatik haurrak kanpoan jolasteko lekurik gabe gelditu dira. Hori da aldaketaren arrazoietako bat.

Beste bat, Japonian ikasketek hartu duten garrantzia da. Garrantzi handia ematen zaio haurrek hezkuntza zorrotza izateari, euren etorkizunerako garrantzitsua delako. Orduan, gurasoek nahigo dute jolastea baino ikastea, ikastetxe onetan sartzeko prestatu behar dutelako. Ez unibertsitate onetan soilik, baizik eta Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzeko ere bai. Azterketa batzuk gainditu behar dituzte, eta horiek prestatzeko aka-

batzuk arriskutsuak zirela, beste batzuk zikinak, beste batzuk gatazka-tsua... Eta memento horiek denok esperimentatu behar ditugu. Esperimentatzen ez baditugu, edo esperimentatzen uzten ez badigute, ez dakigu zer diren, ez ditugu sentitzen, bizitzen, eta ez dugu jakingo sekula zein egoeraren aurrean gauden. Orduan, elementu horiek jolasetik ateratzea ez da erreal, eta esperimentatu ez duten helduak prestatzen ditu. Gaur egun alderdi biolentoa, arriskutsua dena eta abar kentzen saiatzen gara, eta hori ez da erreal, ez dira jolas errealak. Nik jolasaren alderdi errealari eustea nahi dut, dibertsioa bilatzea, baina faktore naturalak kendu gabe.

Adibidez, Walt Disney-ko pelikuletan beti amaiera zorionsua da. Amaierak zorionsua izan behar du, bestela haurrak traumatizatu egiten direlako. Baina, modu horretan, ez diegu erakusten errealitateari aurre egiten. Eta gero, maskota hiltzen zaienean, negar egiten dute. Alderdi negatiboa, alderdi traumatikoa saihesten dugu, ez diegu erakusten, ezkutatu egiten diegu. Ez genuke horrelakorik egin behar, ez genuke haurren jolasik manipulatu behar.

### Nola berreskura daitezke jolas unibertsalak?

Nik uste dut espazioa, denbora eta lagunak edukita berreskura daitezkeela.

Nagusiki bi baliabide hauek jarri behar dira: hezitzaileak eta baliabide ekonomikoak.

Lehen norberak egiten zituen jateko behar zituen ontziak, eta jostailuekin gauza bera gertatzen zen. Lehen ez ziren dendara joaten haurrentzako jostailuak erostera, zegoen materialarekin egiten ziren; batzuetan helduek, eta besteetan haurrek beraiek.

Gaur egun, ordea, erosi eta etxera eramaten zaizkie, inolako ahaleginik egin gabe. Helduek ere berdin egin dute gainerako gauzekin; gaur egun ez da ereiten eta lurra lantzen, baizik eta dendara joan eta inolako ahaleginik gabe erosi egiten da. Gizartea aldatu egin da eta lehen egiten ziren gauza batzuk ezin dira orain egin.

Horregatik, haurrak txiki-txikiak direnetik hasi behar da, haur eskoletatik. Normalean, hezitzaileak ez daude jostailuak egiteko espezializatuta. Orduan, material mota ezberdinekin lan egiten dakiten pertsonak behar dira, jostailuak egiten dakiten hezitzaileak.



# hironori funai

E

// Jolasaren  
alderdi negatiboa,  
alderdi traumatikoa  
saihesten dugu, ez  
diegu erakusten,  
ezkutatu egiten diegu.  
Ez genuke  
horrelakorik egin  
behar, ez genuke  
haurren jolasik  
manipulatu beharko.

//



demia berezi batzuetara joan behar dute. Horren ondorioz, hara joaten dira eta ez dute jolasteko denborarik. Gurasoek, gainera, nahiago dute jolasten denbora galdu ordez ikastea, euren ikasketak arrakastatsuak izan daitezzen, eta enpresa on batean lan on bat aurki dezaten.

### Zer eragin du horrek haurren garapenean?

Alde batetik, haurrak euren gorpuzaren gaitasunez ohartzen dira jolasen bitartez. Eta bestetik, gizartean pertsona heldu gisa behar dituzten ezagutzak ikasten dituzte.

Beste gauza askoren artean, gehien nabarmentzen dena zera da: hurrei jolasa, mugimendua eta adierazpena murrizten zaienean, erreakzionatzeko modua aldatu egiten zaie: pazientzia gutxiago dute, eztabaida eta gatazketan indarkeriarekin erantzuten dute... Haurren suizidio tasa ere igo egin da. Oso ondorio ezkorrak dira, eta eurentzat naturala den ingurune bat, hots, jolasa, falta zaielako sortu da.

Altuerari dagokionez, haurrak altuagoak dira gaur egun elikaduraren-gatik eta abar. Baina indarrari dagokionez, ezaugarri fisikoen aldetik, ahulagoak dira. Esate baterako, alergiak askoz ere ugariagoak dira. Gaur egun hiru haurretik batek alergia du, edo-

zein alergia mota.

### Eta hori ez jolastearen ondorio al da?

Ez da horren ondorioa soilik, baina arazoietakoa bat bada. Beste bat elikadura mota da. Japonian areagotzen ari den arazo bat zera da: Mendebaldeko janaria sartu dela eta, horren ondorioz, haragi eta janari azkar gehiago jaten dela. Japoniar dieta galtzen ari da, eta haurren kasuan oso garrantzitsua da dieta orekatua izatea.

### Ezaugarri fisiologikoez gain, zer garrantzi edo eragin du jolasak giza harremanetan?

Beste hurrekin jolasten zarenean eta jolas sozialak egiten dituzunean, zure gorputza ezagutzen duzu, eta baita besteena ere, ekintzak partekatu egiten baitira. Horren ondorioz, jolasak ez diren eta kontaktua dagoen beste egoera batzuetarako (bilerak, beste pertsonekin egotea gelan edo bestelako giza harremanak), esperientzia hartzen duzu. Badakigu zer den besteekin erlazionatzea, eta ez diegu beldurrik.

Gaur egun, ordea, kontaktu hori ez dagoenez, jolasten ez denez eta parte hartzen ez denez, giza harremana dagoen egoerak ez dira bizitzen. Ondorioz, hurrek ez dakite nola jokatu beste pertsona batekin daudenean; kon-

takturik ez dago, urrundu egiten dira, bakoitza bere bidetik doa; eta bideak paraleloak dira, eta inoiz ez dira elkar-tzen. Alderdi horretatik oso negatiboa da, harreman sozialetarako prestatuta egon behar baita eta jolasak hori erraz-tu egiten baitu.

Are gehiago. Giza harremanez gain, ingurunearekiko eta naturareki-ko harremanak ere garrantzitsuak dira. Gorputzak eboluzionatu egiten du eta indartu egiten da jolasekin, norberaren abildadeak hobetu egiten baitira: korri-ka egiten dugunean edo besteak harra-patzera goazenean, besteak baino az-karragoak garela nabari dezakegu, adi-bidez. Gauza horiek segurtasun han-dia ematen dute. Agian, ikasten soilika-ri bazara, ez duzu jakingo abilezia ho-riek eduki ditzakezunik ere.

**Zer egin daiteke egoera eta arazo horien aurrean?**

Haurrak txikiak direnetik hasi be-

har da gauza horiei eta jolasei garan-tzia ematen. Ni haur eskola bateko zu-zendari izan nintzen urte askoan, eta garbi gelditu zitzaidan hori. Asko azpi-marratzen dut Haur Hezkuntzan ari di-renen lana. Hezitzaile edo arduradun horiek kontzientziatu egin behar dute jolas sozialak garrantzitsuak direla, eta haurrek horiekin hazi behar dutela.

Gaur egun unibertsitateko irakasle naiz, eta jakitun naiz hor ere hori guztia landu daitekeela. Ohiko eskolak emateaz gain, beste material batzuekin lan egiten ere erakusten diet ikasleei. Lu-rrarekin, buztinarekin, argiarekin, itza-larekin... lan eginarazten diet, beste ar-lo batzuetan ere gara daitezen, eta se-kula egin ez dituzten ekintzak egin di-tzaten. Iker dezatela beste zentzume-nekin ere.

**Topatzen al dituzu material horiekin sekula harremanik eduki ez duten ikasleak?**

Bai, noski. Hondartzara edo mendi-ra eramaten ditudanean leku horiek e-rrespetu handia eragiten die. Euren tes-tuingurutik at sentitzen dira. Hori gerta-tuko dela badakidenez, ahalik eta mo-durik egokienean eramaten ditut, bel-dur hori gal dezaten eta berriro leku ho-rietara itzul daitezen.

**Japonian gertatzen dena munduko beste herrialdeetan ere gertatzen al da?**

Pentsatzen du baietz. Ez da Japo-niako arazoa soilik. Garai modernoak ekarri du aldaketa, eta globalizazioak ildo horretan lan egiten duen gizakia eraikitzea bideratzen du.

Horregatik, garrantzitsuena hori dena haurrak txikiak direnetik lantzen hastea da. Zoritxarrez jendeak ez du nik bezala pentsatzen. Txikiak direne-an, txikiak direnez, helduek ez diete behar duten garrantzia ematen jolasei. Garrantzia ematen zaien unean, justu i-kasten hasi behar dute. Ikastetxe on ba-terajoatearen, unibertsitaterajoatearen eta enpresa on batean lan on bat bila-tzearen arazoa hasten da. Nik, ordea, e-zinbestekoa dela uste dut.



## Lurra, ura eta argia

Landare bat landatu eta zaintzeko lurra, argia eta ura behar dituzu. Antzina hiru elementu horiek haurraren bizitzaren parte ziren, kanpoan jolasten zirelako. Gaur egun, berriz, etxean edo barruan daude eta ez dituzte elementu horiek behar, beste bi baizik: pertsona helduak eta dirua, jostailuak erosteko. Hiru elementuetatik bi elementu horietara pasa gara. Lurra, argia eta uraren orde-z helduak eta dirua.

## Boz gora irakurtzen eta deklamatzeko Gasteizko Jesus Obrero BHI ikastetxea

Eskolan ahozotasuna lantzeko beharraz hitz egiten da azken urteotan. Hizkuntza idatziari askoz ere pisu handiagoa eman zaio, ahozkoaren kaltetan. Haatik, horrek ez du esan nahi ezer egin ez denik eta egiten ez denik. Abelino Barriola deklamazio sariadatorren lekuko. Urtero, sari horrek ikasle eta irakasle anitz bultzatzen ditu boz gorako irakurketa edo deklamazioa lantzeraz.

Hiztegiaren definizioari jarraituz, deklamazioa zera da: erretorikaren artea lantzeko idatzitako edo esandako esaldia. Eta erretorika, berriz, honako hau: ongi hitz egiteko edo idazteko artea, eta erregela eta prozedura multzoa. Abelino Barriola deklamazio sariak biltzen duenak ildo horixe jarraitzen dio: ikasleei euskaraz behar den erraztasunez, ebakera zuzenez, eta doinuera egokiz irakurtzen irakasteko ahaleginei garrantzi handiagoa ematea, eta ereduak plazaratzea. Horregatik, urtero lehiaketa bat antolatzen da.

Lehiaketaren bitartez, bada, ikasleei irakurmena lantzen eta testu idatziak ahoz adierazten erakutsi nahi zaie. Horretarako, jakina, irakasleen zeregina funtsezkoa da; hau da, garrantzi handia du irakasleek haurrek irakurtzeari zenbateko arreta eskaintzen dioten eta zerenolako irakasbideez baliatzen diren. Horregatik, lehiaketak biak saritzen ditu: ikasle taldeak eta irakasleak. Ikasleek hiruzpalau eguneko bidaia egiten



dute Ipar Euskal Herrira eta Nafarroara, eta irakasleek, berriz, astebeteko bidaia: euskaldunok bezala bere hizkuntza indarbertzen saiatzen ari den edo ahozotasunean ibilbide luzea egin duen herrialde batera.

Lehiaketan ikasgelek hartzen dute parte, ez banako ikasleek. Ongien irakurtzen edo deklamatzeko dakiten ikasle taldeak saritzen dira. Eta ikasleen mailaren eta adinaren arabera, zazpi multzo bereizten dira.

Ikasturtearen lehen eta bigarren hiruhilekoan landu ohi dute ikastetxeetan irakurmena eta deklamazioa. Hasteko, derrigorrezko testu bat izan ohi dute irakurtzeko, antzerki zati bat. Pertsonaia adina ikasle hartu behar du parte. Gero, taldeak berak aukeratutako hitz lauako bi irakurgai landu behar dituzte, beste bi ikasle deklamatzeko.

Eta, azkenik, taldeak berak aukeratutako bi olerki, beste bi ikasle irakurtzeko.

Hori dena landu ondoren, ikastaldeak grabazio bat egiten du, eta hori da lehiaketara bidaltzen dena. Gero, aurkeztutako ahots hoberenekin CD bat argitaratzen da, ahalik eta zabalkunde handiena emateko eta, eredu gisa, ikastetxetara bidaltzeko.

### Deklamazio maila neurtzeko irizpideak

Irakurmen edo deklamazio maila hoberena neurtzeko honako irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- Abiadura handiegia sailhestu egin behar da. Testuaren ezaugarri lotuta erabaki behar da mantsoago edo bizkorrago irakurri. Alegia, alboratu egin behar da zenbat eta arinago irakurri orduan eta hobe delako ustea.



- Irakurtzen arituko ez balira bezala irakurtzen saiatu behar dute ikasleek: sinesgarritasuna, testua sentitzea, testua irakurtzen gozatzea...

- Isiluneak egin behar dira. Isiluneak testuak eskatu ahal eta behar den bezalategiteak asko hobetzen du arreta.

- Euskararen fonetika legeak eta ebakera arauak ahalik eta ongien errespetatu behar dira, erdal erreferentziak ahal den neurrian ezabatuz. Besteak beste, "yeismoari" aurre egin nahi zaio, eta tz/ts/tx fonemen ebakera zuzena berariaz zaindu nahi da.

- Erdal doinuari eta, batez ere, haren eraginez azentuak azkenaurreko silaban jartzeko joerari itzuri egiten saiatu behar da.

- Euskararen doinuera egokia, berdin du euskara batuan edo euskalkiren batean idatzitako testua irakurri, bereziki zaindu behar da: aho hizkuntzaren mintzamolde jatorra da eredu (ez zen = etzen). Euskal hiztun onen ohiko erabilerari egin behar zaio kasu.

- Naturaltasunaren eta kasuan kasuko testuaren arabera, aintzat hartzekoak dira orobat enfasia eta indarra. Galdera markak normalean ez dira behetik gorako doinuan amaitzen. Harridurretan ere joera artifizialak saihestu egin behar dira.



## Gasteizko Jesus Obreroko esperientzia

Gasteizko Jesus Obreroko BHIko Jose Ramon Iñarga irakasleak urtero animatzen du talderen bat lehiaketan parte hartzera. Gasteizko ingurune sozio-linguistikoa ez da egokiena euskara asko entzuteko, eta horregatik iruditzen zaio garrantzitsua eskolan deklamazioa lantzea.

Iazko ikasturtean DBHko 2. mailako ikasleak animatu ziren. DBHko 2. mailan euskara lantegirik ez dute; bai ordea, DBHko 1. mailan. Halere, aurreko ikasturteko esperientzia gustatu, eta 14-15 ikasle animatu ziren ordutegitik at deklamazioa lantzera. Batzuek irakurri zuten; antzerkia, ipuina edota olerkia; beste batzuek efektuak egin... bakoitzaren interesen, gustuen eta nortasunaren arabera. Hau da, ahots goxoko pertsonaia batentzat ahots goxodun ikaslea aukeratu zuten, aiurria behar bazen aiurri biziko norbait...

Irakasleak ahotsa noiz igo behar duten, nola ahoskatu behar duten, indar gehiago non jarri eta abar erakusten die. Aholkuak ematen dizkie: mantso irakurtzeko, ez ahazteko ondo ulertu behar dela, doinua emateko... "Hemen, Araban, zaila egiten zaigu besteak beste, tz ahoskatzea, beste leku batzuetan ez bezala, hemen bereziki landu behar dira. Gernikan edo Markinan, esate baterako, beti euskaraz hitz egiten dute, eta ahoskera lantzea errazago egiten zaie", dio Jose Ramon Iñarga irakasleak.

Irakasleari ahalegin berezia eskatzen dio, baina argi dauka ikasleentzat komenigarria denez, landu egin behar dela. "Gero eta gutxiago irakurtzen da

eta, nire ustez, oso garrantzitsua da ongi irakurtzea. Askotan oso azkar irakurtzen dute eta ez dira jabetzen irakurri dutenaz. Gainera, irakurtzen duguna, ez dugu boz gora irakurtzen. Ez dugu ez gure ahotsa ez besteena entzuten, eta hori ere oso interesgarria da, bai euskara ikasteko, bai hobeto ulertzeko".

### Ikasleen zailtasunak

Oihane Torres eta Lorena Hernandez ikasleak gustura aritu ziren iaz, bai testuak lantzen, bai grabaketa egiten. Oihaneren hitzetan, zailena da zein tonujarri behar den gogoratzea. "Testuan apuntatzen dugu, baina halere... Gainera, grabazioan urduritu egiten gara, eta ez gara gogoratzen". "Horrez gain, urduritasuna dela-eta, abiadura hartu ohi dugu, eta ez komarik, ez punturik ez dugu egiten", dio Lorenak. "Puntua baldin badago atsedena hartu behar da, ez dago arazorik bi edo hiru segundo gelditzeko. Baina...". "Eta doinuera. Horrekin izaten ditugu komeriak. Pertsonaia haserre baldin badago, hori adierazi egin behar da, eta batzuetan zaila izaten da paperean sartzea", dio Oihane.

Ipuina, antzerkia edo olerkia izan, irakurketa aldatu egiten da. "Olerkia norberak irakurri behar du; antzerkia, berriz, taldean", dio Lorenak. "Olerkia oso poliki irakurri behar da, oso lasai, entzuten duenak erlaxatu egin behar du. Antzerkian, aldiz, ez; adi egon behar da, zer gertatzen den jakiteko. Ipuinarekin hainbat ahots egin behar ditu bakoitzak, banaka egiten baita".

Aukera bakoitzak bere berezitasunak ditu, bakoitzak bere joko ematen du. Eta hor dago gakoa: jolas hori bilatzean. Jesus Obrero ikastetxeko ikasle horiek aurkitu dute. ●

## Hiri hezitzaileak

### Hezkuntza inklusibotik hiri inklusibora



**Pauli DÁVILA**

**EHUKO IRAKASLEA**

Beste hiri mota bat posible delako ideia hirigile, hezitzaile, arkitekto, artista, politikari... askok dute buruan, eta baita hiriarekin sufritzen edo hiriaz gozaten duten hiritar askok ere. Hiri bat krisian sartzen denean, beste mundu bat irudikatu behar dugu, beste gizarte mota bat. Alegia, hiria ezeztatzen duen utopia asmatu behar dugu, dena geldirik mantentzen baitu, hiriko espazio baten ezaugarri den dinamika bizitik urrunduz. Hiriak gizakien arteko harremanen aldaketaren adierazpen direlako sortu ziren eta irauten dute, harreman ekonomikoen, harrizko sinesmen eta ideologiaren, topaketaren eta bizikidetzaren adierazpen direlako. Eta horrekin batera, badakigu bertan bizi den gizartearen erakusgarri ere badela, bere gatazkak eta esperantzak islatzen di-

tuela, eta, gainera, ikasteko aukera ematen duen espazio sozial bat dela. Esan dezakegu hiria hiritarren arteko bizikidetzarako eskolarik onena izan daitekeela. Horregatik hitz egiten dugu hiri hezitzaileez.

Esan dugun guztia bistakoa da, gutxi gorabehera horren jakitun gara. Horregatik, egin nahi dugun planteamendua hiritartasunaren ingurukoa da, politikari askoren buruhaustea dakarrena: nola hurbildu hiria hiritarrena? Nola lortu hiria bezalako eguneroko espazioa hiritarrek beren sentitzea? Zer egin gune baztertuak "duintzeko"? Hau da, nola eman giza arnasa harreman sozialetarako ortutako hiri espazioari? Hiriak eskaintzen dituen eraikin enblematikoek, egitura handiek, azpiegitura onek edo zerbitzuek noiz hartzen dute beren benetako dimentsioa? Bertan bizi diren gizon eta emakumeen, haurren, helduen, ezinduen eta gazteen eskura daudenean horiek denak. Aldi berean, hiria gizonen eta emakumeen euren historian zehar osatu duten kultura txertatzeko ohorezko lekua da; gure giza naturaren adierazpena da, gure ingurumena.

#### Hiria eta giza eskubideak

Horrelako galderei erantzuteko erarik onena, erraz ulertzen eta transmititzen a den oinarri batetik abiatzea da. Oinarri hori giza eskubideena da. Izan ere, giza eskubideen oinarria duintasunean dago, eta horrek boterearen ari-

keta orekatzen du. Horrekin batera, giza eskubideen alde benetako apustua egiten dutenak dira hiri duinak. Hiriak gizatiartu egiten bagaitu, hiria gizatiartzeko gauza ere izan behar dugu; hiriko bizikidetzak eramangarria izateko, beharrezkoa den komunikazio hori transmititzeko gai izan behar du. Baina hain oinarrizko dirudien abiapuntu horrek ikuspegi teorikoan zein pragmatikoan oinarritu behar du. Horretarako, giza eskubideetan oinarritutako hiri hezitzailea planteatzeko, Nazio Batuen hainbat dokumentutan agertzen diren kontzeptuetatik abia gaitzke. Kontzeptu horiek zenbait eskubideren gozamenari buruzkoak dira, besteak beste, etxebizitza, elikadura eta hezkuntza eskubideen gozamenari buruzkoak<sup>1</sup>.

Eskubide horien egoera aztertu ahala, mutatis mutandi, zenbait kontzeptu sendotuz joan dira eta baliagarriak izan daitezke hirien egoera eta hiriek giza eskubideak kalitatez eta errespetuz betetzen dituzten ikusteko. Zehatzago esanda, 4 As<sup>2</sup> eskemari buruz ari gara. Eskema hori hezkuntzaren eskubidea ikertzeko eta ezagutzeko baliagarria izan daitekeela ikusi da, eta aztertzeko ari garenerako interesgarria da. Hortaz, horren ezaugarriak ikusiko ditugu labur-labur hezkuntzan, gero hiri-ara aplikatzeko:

**Eskuragarritasuna:** alderdi honetan oso zuzenean daude inplikaturak Estatuaren betebeharrak. Izan ere, hez-

kuntzaren eskuragarritasuna bermatu behar du, beharrezkoa eta doakoa izan dadin. Edonola ere, horrelako gaiek Estatuaren teoria bat eskatzen dute, ongi ezagutzeko estatuaren esku-hartzearen mugak, gurasoen aukeratzeko eskubidea, eskola publikoaren eta pribatuaren funtzioa edo curriculum. Horrela, eskuragarritasunak bi alderdi hauek ditu:

#### 1- Gobernuaren bi betebeharrak:

- Derrigorrezko eta doako hezkuntza eskuragarri dela ziurtatzea.
- Gurasoek euren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza bermatzea, eta irakaskuntzako instituzioak ezartzeko eta gidatzeko askatasuna bermatzea.

#### 2- Gurasoek euren seme-alaben hezkuntza aukeratzeko duten askatasunari buruz:

- Ezartzeko, arautzeko eta kontrolatzeko boterea du Estatuak.
- Derrigortasuna haurrentzat.

**Sarrera:** sarrerek ez du esan nahi Estatuak Lehen Hezkuntzako sarrera soilik bermatu behar duenik, baizik eta etapa guztietakoa, askotan ordaindu egin behar baita. Beharrezkoa da sarrera hori diskriminaziorik gabekoa izatea eta eskola inklusiboa bideratzea. Nazioarteko akordio askotan aipatzen da edozein diskriminazio motaren aurreko jarrera negatiboa. Era berean, hezkuntzan egiten diren diskriminazioak ere aipatzen dira hainbat txostenetan. Hezkuntzarako sarreran egiten diren diskriminazioek neskei, ezinduei edo et-

**Hiriak gizatiartu egiten bagaitu, hiria gizatiartzeko gauza ere izan behar dugu**

nia gutxietakoei eragiten diete batez ere. Bi alderdi eduki behar dira kontuan:

#### 1- Dauden eskola publikoetarako sarrera bermatu. Diskriminaziorik eza hartu printzipiotzat. Progresiboki ezarri.

- Hezkuntza ereduak: derrigorrezko hezkuntzak doakoa izan behar du, eta derrigorrezkoaren ondorengoa (bigarren mailakoa eta goi mailakoa) doakoa izan daiteke edo ez.

#### 2- Estatuaren bi betebeharrak:

- Irizpide diskriminatzaillean oinarritutako bazterketak kentzea.
- Hezkuntza eskubideaz gozatzea saihesten duten oztupoak identifikatzea.

Bazterketa ikusarazi egin behar da, eta baita bazterketaren hainbat kausa ere. Era guztietako diskriminazioak debekatu behar dira, ez ezabatu soilik.

**Onargarritasuna:** onargarritasuna kalitateari eta osasun eta segurtasun baldintzak betetzeari dagokio. Horrekin batera, heziketa prozesuan "hezkuntzarako eskubideaz" gain (eskuragarritasuna eta sarrera), "hezkuntzako eskubideak" ere (onargarritasuna eta moldagarritasuna) bermatzea bilatzen du. Lehen aipatu dugu gutxietuek eskolan euren hizkuntza erabiltzeko duten eskubidea; bada, eskubide horrek hezkuntzan onargarritasun handiagoa eskatzen du. Baita haurren lanak ere, eskolara joatea eragozten dien indarkeria mota bat baita. Hemen ere bi alderdi azpimarratu behar dira:

#### 1- Hezkuntzako kalitatearen irizpideak biltzen ditu eta progresiboki zabalduz joan da. Estatuaren bi betebeharrak:

- Giza Eskubideekin bat datozen ezaugarriak dituen hezkuntza bultzatzea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak Giza Eskubideekin bat datozela ziurtatzea.

#### 2- Giza Eskubideak hezkuntzan sartzea elementu giltza da hezkuntzaren kalitateerako.

- Irakasleen eskubideak eta askatasunak. Irakasteko bitartekoak. Hezkuntzaren edukiak. Eskolako metodoak eta diziplina.

**Moldagarritasuna:** haurraren interesari lehentasuna emanez (hori da *Haurraren Eskubideen Hitzarmenaren* printzipio nagusietako bat), moldagarritasunak ahalegin sortzaile handia eskatzen du eskolak haurren beharretara egoki daitezen. Beste A-esekin gertatzen den moduan, moldagarritasuna diskriminazioaren alderdiekin erlacionatuta dago, baina baita kultura, erlijio... aniztasunarekin ere. Horregatik, moldagarritasunak hezkuntzaren bidez giza eskubideak hobetzea bermatzen da. Giza eskubideen gaineko programak eskatzen dira, munduan zein eskolako praktikan. Askotan giza eskubideen heziketa hiritarrentzako irakaskuntza bilakatu da, eta horrek hezkuntzak aniztasunari erantzun behar ote dion zalantzan jarri du, hori baita moldagarritasuna bermatzeko modurik onena. Bi alderdi nagusi azpimarratuko ditugu:

#### 1- Eskola haurren beharrei eta giza eskubideei egokitu behar zaie. Estatuaren hiru eginbeharrak:

- Eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzea.
- Hezkuntza "haurraren interesetara" egokitzea (1989ko *Haurraren Eskubideen Hitzarmena*).
- Giza Eskubideak hobetzea hezkuntzaren bidez: zatiezintasuna

#### 2- Aniztasunera moldatu.

- Eskolan sartzeko dauden oztupo guztiak identifikatzea eta bistaratzea.
  - Aniztasuna onartzea eta diskriminazioa eta biktimizazioa babestea.
  - Diruaren beharra haur guztiei kalitatezko hezkuntza ziurtatzeko.
- Orain arte esandako guztia 1. taulan ikus daiteke.

Laburpen moduan, prozesu hone-

tan eragile garrantzitsuenetako bat Estatua dela esan dezakegu. Estatuak bete behar batzuk ditu eta, besteak beste, inbertitu egin behar du hezkuntzan, bai azpiegituretan, bai mantenuan. Baina, horrez gain, ikastetxeen eskuragarritasuna ziurtatu behar du beraien behar guztiekin. Kolektibo guztien sarrera ziurtatu behar du, diskriminaziorik gabe, bai eskola barruan, bai sarrerak onartzerakoan. Modu berean, Estatuak hezkuntzako arauak ezarri behar ditu, hezkuntzak giza eskubideak onartzen eta kulturantzatasunera molda dadin.

Proba gisa, kategoriatan horiek berak jarraitzen dituen hiri bat planteatu genezake. Hezkuntzarako balio dutela ikusi da, eta hezkuntzaren egoera aztertzeke ere baliagarri direla. Beraz, hiri baten zatitza ere egokiak izan daitezke. Ikus dezagun.

### Hiri inklusiboa

Analisi eta proiektio politikoaren proposamen honek hiri inklusiboa defendatzen dela esan nahi du, hezkuntza inklusiboaz hitz egiten dugunean bezala. Nazioartean garrantzi handia hartzen ari da<sup>3</sup>, helburua berbera baita bai hezkuntzan, bai hirian: askotariko arazoengatik desberdinak diren hiritar guztien inklusioa. Gure hirietako errealitatea horri lotuta dago, egunetik egunera gehiago. Hiri inklusiboa bertako hiritar<sup>4</sup> guztien eskura jartzen den hiria izango litzateke, baina bereziki integra-

tzeko arazoak dituzten, ezintasunak dituzten, baztertuak dauden eta behar bereziak dituzten pertsonen eskura. Pertsona horiek normalean gainerakoek baino zailtasun gehiago izaten dituzte euren eskubideez gozatzeko. Bi proposamen osagarri aipa daitezke: bata, "hiritartasunerako eskubidean" oinarritua, eta bestea, "hiriko eskubideetan". Lehenengoak zera adierazten du: hiritar guztiek, hiritar izate hutsagatik, hiritartasun duina izateko eskubidea dute. Horrek esan nahi du herriko agintariek bete behar batzuk dituztela. Eta bigarrena, aldiz, ekintza positibo bat da, eskubideak hirian ager daitezen. Horrela, hiritartasunerako eskubideak hiri eskuragarria eta sarrera duena izatea ahalbidetzen du, eta hiriko eskubideekin hiria onargarria eta moldagarria dela suposatzen da. 2. taulan zehaztasun gehiagorekin azalduko dugu gaia.

**Hiri eskuragarria:** hiri eskuragarria egitea edo beharrezkoa den erabilgarritasuna edukitzea da hiri batek bete behar duen lehen baldintza. Hiriek euren gobernu zereginak bete behar dituzte, parte-hartzea bultzatzeaz gain. Beraz, zera azpimarratu behar dugu:

#### 1- Udalen bi betebeharrak:

- Azpiegiturek eta zerbitzuak eskura eta erabilgarri egon daitezen ziurtatzea.
- Hiritarren parte-hartzea bermatzea.



**Giza eskubideetan oinarritutako hiri hezitzailea planteatzeko, Nazio Batuen hainbat dokumentutan agertzen diren kontzeptuetatik abia gaitzke. Kontzeptu horiek zenbait eskubideren gozamenari buruzkoak dira, besteak beste, etxebizitza, elikadura eta hezkuntza eskubideen gozamenari buruzkoak**

**Sarrera duen hiria:** hiri batek azpiegiturek eta zerbitzuak baldin baditu, horiek hiritar guztien eskura egon behar dute, hiritar guztiek horietaz baliatzeko aukera eduki behar dute, bazterketarik gabe eta batez ere diskriminaziorik ezaren printzipioa azpimarratuz, nazioarteko hitzarmenetan agertzen diren arrazoiak tarteko: arraza, adina, sexua, ezintasuna eta abar. Horretarako, eskubide horiek erraztu eta bermatu egin behar dira, eta baita betebeharrak ere.

*1- Dauden zerbitzu eta sarrera bermatu. Printzipiotzat diskriminaziorik eza hartu. Progresiboki ezarri.*

- Kolektiboaren araberako ereduak erabili.

#### 2- Udalen bi betebeharrak:

- Irizpide diskriminatzaileetan oinarritutako bazterketa guztiak ezabatzea.
- Hiritartasunaren eskubideaz gozatzeko eragozten duten oztopoak identifikatzea.

Bestalde, bazterketa bistaratu egin behar da, eta baita bazterketen kausak ere. Horretarako, ezabatu ez ezik, debekatu egin behar dira diskriminazio mota guztiak.

**Hiri onargarria:** hiri onargarriaz hitz egiterakoan, hiriko kalitate irizpideak hartu behar dira kontuan. Irizpide horiek progresiboki handituz joan behar dute, baina, batez ere, giza eskubideak aintzat hartzea da garrantzitsua. Hiri bat hainbat eta onargarriagoa bihurtzen da gobernuaren edo udalaren arlo guztietan giza eskubideak bultzatzeko ekintzak egiten direnean. Horretarako, oso garrantzitsua da zerbitzuetan esku hartzen duten eragileen eskubideak eta askatasunak errespetatzea eta, giza eskubideetan oinarritutako ekintza programak aurrera ateraez, hiri hezitzailea ahalbidetzea.

#### 1- Udalen bi betebeharrak:

- Giza eskubideekin bat datozen zerbitzuak bultzatzea.
- Hiritarren bizikidetzaren giza eskubideekin bat datorrela ziurtatzea.

**Hiri moldagarria:** azkenik, ikuspegi honek hiritarren eta instituzioen arteko harremanak aldatzea dakar. Hiritarrek hirira "egokitu" behar dutela pentsatzen da, hori dela "integrazioa" lortzeko modurik onena. Aitzitik, benetako integrazioa hiria hiritarregana, euren beharretara, euren aurreikuspenetara eta euren parte hartzeko aukeretara egokitzen denean gertatzen da, betiere aniztasuna eta giza eskubideak errespetatuz. Beraz, kontua ez da hiri "tolerantea" egitea, baizik eta giza eskubideak errespetatzen dituen hiria egitea. Tolerantziak, askotan, hiritarren arteko bizikidetzan gertatzen denarekiko axolagabetasuna dakar; errespetuak, aldiz, aniztasuna onartzea eta giza eskubideak modu eraginkorrean defendatzea.

#### 1- Hiriek talde sozial askotarikotara eta giza eskubideetara egokitu

**Hiria hainbat talde sozialei eta giza eskubideei egokitu behar zaie, eta ez alderantziz**

*behar dute, eta ez alderantziz.*

#### 2- Udalen hiru betebeharrak:

- Ekintza hezitzaileak eta hiritarrak sustatzea.
- Hezkuntza eta hiria "hiritarren interesetara" egokitzea.
- Giza eskubideak hobetzea, hiriko heziketaren bitartez: zatiezintasuna

#### 3- Aniztasunera egokitu

- Hiri duinaz gozatzeko aukera oztopatzen duten traba guztiak identifikatu eta bistaratu.
- Aniztasuna onartu eta diskriminazioaren eta biktimizazioaren aurka babestu.

Esan dugun guztia laburtzen duen adibide bat garraio publikoarena izan daiteke, hiriko instituzioek eskaini behar duten zerbitzua baita. Beraz, erabilgarritasuna betetzen da, denentzat sarrera izan behar duena. Zentzu horretan, horrelako garraio gehienek oztopo arkitektonikoak gainditu dituzte ezinduek erabil ditzaten, edota helduei zein beste kolektibo batzuei prezio bereziak eskaintzen dizkiete. Bi baldintza horiek betetzen badira, hiri duina izateko baldintzak betetzen direla esan nahi du. Onargarritasunari dagokionez, posible da garraio publiko horietan irudiak eskaintzea hiriko informazioa emanetz, edo osasunari edo giza eskubideen kontzientzia hartzeari buruz. Beraz, horrekin onargarritasuna aseta egongo litzateke. Azkenik, eta berau izango litzateke behin betiko proba, garraio horiek kolektibo guztien interesetara egokitu behar dute, giza eskubideetan eta beraien beharren aniztasunetan oinarritutako ildoarekin.

Beste adibide batez ere balia gaitzke ikusteko hiri batek giza eskubideen adierazle diren ezaugarri horiek betetzen dituen edo ez: kolektibo sozial baten lekuan jar gaitzke; adibidez, haurren. Aipatutako kategorien arabera, galdera hauek erantzun beharko lirateke: ba al dago haur guztientzako adina parkerik? (Erabilgarritasuna) Haur guztiak iritsi al daitezke inolako diskriminaziorik gabe? (Sarrera) Antolatuta

**Giza eskubideetan oinarritutako heziketak lau ezaugarri bete behar ditu: eskuragarritasuna, sarrera, onargarritasuna eta moldagarritasuna. Hiri hezitzaileak edo inklusiboak ere ezaugarri berak bete beharko lituzke**

ko ekintza ludikoak giza eskubideen ikuspegitik planteatuta al daude? (Onargarritasuna) Haurren interesak gidatzen al ditu jolaserako eskubidearen planteamenduak? (Moldagarritasuna) Ezinduekin, etorkinekin, pertsona helduekin eta abarrekin antzeko galderak egin genitzake. Horrelako taldeak aipatu ditugu, horiekin egin behar baitira ahalegin handienak hiri inklusiboa lortzeko.


1- Nazio Batuetako txostenak Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordearen web gunean kontsulta daitezke: <http://www.ohchr.org/spanish/bodies/cescr/index.htm>

2- K. Tomasevki izan da Nazio Batuetan Hezkuntza Eskubideari buruz idatzi duen lehen aditua (1998-2004), eta haren ekarpenak funtsezkoak izan dira munduan eskubide hau garatzeko. Eskema horrek egiten duen lehen erreferentzia Idazki Bereziko atariko txostenean daukagu: E/CN:4/1999/49. Geroztik sakondu egin du hainbat argitalpenetan; adibidez, K. TOMASEVSKI, "El derecho a la Educación, panorama internacional de un derecho irrenunciable", in L. M. NAYA (koord.): La educación y los Derechos Humanos, Erein, Donostia, 2004, 693-690 or. edo K. TOMASEVSKI, Human Rights Obligations in Education. The 4-As Scheme. Wolf Legal Publishers, Nijmegen, 2006.


3- AINSCOW, M.: Desarrollo de escuelas inclusivas, Nancea, Madril, 2001.

4- Ezin dugu ahaztu globalizazioaren gaur egungo gizarteetan hiritarrak hiri batean sartzekoan egiten direla bazterketarik handienak. Hiritarrak ezeztatzen dira, edo zailtasunak jartzen zaizkie euren eskubideak ez onartzeko.

## 1. taula



## 2. taula



Irakasle, hemen dituzu gure azken liburuak.

Pil-pilean dauden gaiak ("Giza migrazioak" eta "Aldaketa klimatikoa" Euskal Herrian izango duten eragina) dira lehenengo biak.




Badira ere euskal curriculumarekin zuzenki lotzen diren beste bi gai ("Euskaldunen jatorria" eta "Mairen erradiografia"). Euskaldunek historiaurreko Europaren sorreran izandako eragina eta euskal mitologiaren azpian biltzen diren sekretu asko ezezagunak ditugu maila kontzientean baina geure inkontziente kolektiboan bizirik daude. Horiek aztertzen dira liburu bi horietan.

Irakurketa liluragarriak, beraz. Euskal Herritik azertuak eta gure herria mundu globalizatuarekin lotzen dutenak.

Irakasleak zarete ikerketa hauek belaunaldi berriei transmititzeko ezinbesteko katemailak...

**...erabili testu hauek!**

Liburu-dendetan eta gure web orrian salgai!!!



www.gaiak.net



**gaiak argitaldaria**

San Bartolome, 36 behea 2007 DONOSTIA Telefonoa/faxa: 943 471 304

## Zer egin DBHn ikasteko gogorik ez dutenekin? Nola orientatu ikasle horiek? Nola saihestu eskola porrota?



Galdera hauek egitean, motibazio-ari buruz galdetzen ari gara azken batean. Pertsona bat motibatzea ez da gauza erraza egoera jakin batetik etekinik ateraz ezin duela ikusten badu. Baina, hezkuntza esparrutik eta familiarik aurrera egitera bultzatuko duen arrazoiren bat bilatzen lagun diezaiokegu. Berez, pertsona guztiok, gauzak egiteko gogoia izaten dugu, izatez, dinamikoak gara. Beraz, zergatik ez dute haur eta gazte txo horiek ingurukoek egiten dutena egiteko gogorik? Normalean, ez dutelako helburu zehatzik eta etorkizunik ez dutelako ikusten. Esango nuke, gehiegi esatea dirudien arren, bizitzari berari ez diotela zentzurik ikusten. Eta zerikusi handia du ikasteko gogo faltak bizitzari zentzurik ez ikustearekin. Ikasleek eta pertsonak orokorrean, inguruan dutenari zentzua ikusten diotenean, gauzak egiteko gogoia izaten dute eta besteek beraiengandik espero dutena lortzeko eta gainditzeko gogoia.

Dena den, bi egoera mota bereizi



**Rakei DEL FRAGO ARBIZU**

EHUko IRAKASLEA

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila

beharko genituzke: alde batetik, egun jakin batean eskolara joateko gogorik ez duen haurra izan dezakegu eta bestetik, ikasten jarraitzeko gogorik ez duena. Normala da ditugun betebeharreri egunero berdin ez erantzutea, denoi gertatzen zaigu uneren batean, bai-

na orokorra bihurtzen bada, horri heldu eta irtenbidea eman behar diogu. Motibazio falta ez da arazo bat, sintoma bat baizik, eta guk hori gainditzeko lagun diezaiokegu bere gauza onak ikustarazten eta dituen arazoak nola gainditzakeen erakusten. Bizitzari zentzua bilatzen, zorientasuna bilatzen lagundu behar zaio.

Askotariko faktoreak egon daitezke ikasteko gogo ezaren atzean, baina funtsean hiru arrazoi nagusi aurki ditzakegu:

- a) ikasleak bere parekoekin dituen harremanak onak ez izatea,
- b) familiak behar duen arreta maila ez eskaintzea eta
- c) eskolan pedagogikoki hutsuneak egotea.

12-16 urte bitarteko neska-mutilen adina berezia da, berez. Garai horretan helduak izaten hasten dira baina helduak izan gabe amaitzen dute DBH. Adin horretan, normalean, lagunekin egoteko gogo handia izaten dute eta es-



kola izaten da beraiekin biltzeko toki nagusia, ordu asko ematen baitituzte bertan. Beraz, lagunekin egoteko besterik ez bada ere, eskolara joateko motibazioa izan beharko lukete. Horrela ez bada parekoen artean urruntasuna dagoelako izango da, bai kognitiboki, bai sozialki. Eskolara joateko gogorik ez badute, lanak egiteko gogorik ere ez, atera beharko lituzketen emaitzak eta beraien betebeharrak ez badituzte betetzen... parekoengandik urrunegi daude. Urruntasun hori kognitiboa izan daiteke, irakasleek diotena ulertzerira iristen ez denean eta emaitzak onik ez ateratzea ohikoa bihurtze denean; beste batzuetan, nortasuna, ezaugarri pertsonalak dira urruntasun horretan eta motibazioan eragina izaten dutenak.

Izan daiteke familian arazoak izatea eta jaso beharko lukeen guztia ez ja-

**DBHn, adin horretan, lagunekin egoteko gogo handia izaten dute eta eskola izaten da beraiekin biltzeko toki nagusia. Beraz, lagunekin egoteko besterik ez bada ere, eskolara joateko motibazioa izan beharko lukete. Horrela ez bada parekoen artean urruntasuna dagoelako izango da, bai kognitiboki, bai sozialki.**

sotzea. Orduan, zergatik ez eman hezkuntza-zentroan? Komunikazioaz, afektibitateaz eta babesaz hitz egiten ari naiz. Etxean askotan lana dela eta bestea dela, arazoei buruz hitz egiteko aukerarik ez dute. Eta beraien gauzei buruz hitz egin beharra izaten dute: sexua, lagunak, droga... Izan ere, gurasoek entzuten ez dutenean eta bi norabideko komunikazioa falta denean, arazoak sortzeko arrisku handia dago.

Bestalde, irakasleak izan daitezke ikasgaiak azaltzerako edo transmititzeko orduan huts egiten dutenak, pedagogia mailan ez denean ikasleari berari dagokion estilorik topatzen eta lehen zailtasunak agertzen hasten direnean, eguneroko irakaskuntza prozesuan ez denean esku hartzen.

Arazoaren jatorria non dagoen jakitea zaila izaten da maiz, esan dugun moduan, eragina ez baitu faktore bakarrik izaten askok baizik. Era horretan, modu globalean egin behar zaio aurre. Ikastetxeari egokitzen zaio askotan arazoari aurre egitea eta orientazio departamentuak izaten du horren ardura. Irakasleek eta pedagogoei elkarlanean aritu behar dutela esan beharrik ez dago.

#### Porrota

Badira ikasgaiak ozta-ozta gainditzeko dituzten ikasleak eta horiei askotan ez zaie jaramonik egiten. Izan ere, aurreikusitakoa gaindituz gero, badirudi porrotik ez dagoela. Eskola porrotari buruz hitz egiten dugu urtez-urte ikasgaiak gainditzeko ez direnean edota ikasleak beregandik espero dena lortzen ez duenean. Eta lortu ezean, desmotibazioa egongo da, aurrera jarraitzeko gogorik eza. Baina garrantzitsua litzateke, arrakasta lortzea, txikia izan arren, ikasgai batzuetan bakarrik izan arren. Beraz, lehendabiziko gauza helburu txiki batzuk jartzea eta horiek lortzea izango litzateke. Gauzak egin behar dituzte, ardurak izan behar dituzte baina beti epe motz batera, inguru eza-gun batean eta gustuko gauzak egiten. Gauza asko egiteko gai direla sentitu behar dute.

**Ezin gara “zuk jakingo duzu!” modukoetan erori pertsona horrekin lan egiteko aukera galduko dugulako. Energia asko behar da beraiekin lan egiteko baina emaitzak lortzen dira eta gehienak egoera horretatik ateratzen dira. Prozesu horretan etsiko ez duten irakasleak behar dira eta horrek lana eta balorazioa eskatzen du.**



Estatu espainiarrean, azken urteotan ikasleen % 30ek ez du DBH gainditzeko eta gu ez gaude oso urrun datu horretatik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan gainera, % 14k DBH gainditu bai, baina ondoren ez du ikasketekin aurrera jarraitzen. Hau da, porrota egon, badago, zeren DBH denek gainditu beharko lukete, derrigorrezko eta oinarrizko gaiak direlako. Ikusten direnean, hutsuneak bete egin behar dira eta pedagogikoki neurriak hartu behar dira: pasibitateari aurre egiteko ardurak jarri, kasu asko egin, kontrolatu egin behar dira... Ezin gara “zuk jakingo duzu!” modukoetan erori pertsona horrekin lan egiteko aukera galduko dugulako. Energia asko behar da beraiekin lan egiteko baina emaitzak lortzen dira eta



## Profesional taldeak pertsona horrentzat egokitutako egitasmo bat egin beharko

luke eta pasibitatetik  
ateratzeko helburuak  
jarri beharko lirатеke,  
gustuko izan ditzakeen  
gauzei heldu behar  
diegu eta beste gauza  
guztiak horien  
inguruan planifikatu.  
Helburuak jarri behar  
dira eta ondoren  
prozesua kontrolatu.  
Arrakasta izan behar  
du eta arrakasta  
indibidual hori  
azpimarratu behar da.

batzuk bidean geratzen diren arren, gehienak egoera horretatik ateratzen dira. Psikologoek eta pedagogoek badute hori bideratzeko prestakuntza. Prozesu horretan etsiko ez duten irakasleak behar dira eta horrek lana eta balorazioa eskatzen du.

### Orientazioa eta tutoretza

Haur eta gaztetxoaren arazoak entzuteko espazioa falta da. Irakaskuntzan sarritan maitasuna falta da, ikasleek afektibitatea sentitzea, irakasleak atseginak izatea... Pertsonak hezi behar ditugula esaten dugu, baina kontua ez da matematiketan edo hizkuntzetan onak izango diren ikasleak egitea, baizik eta

pertsona bera heztea. Ikastetxeetako orientazio departamentuek bizitzarako egin beharko lukete orientazio psiko-pedagogikoa, ez profesionalki edo akademikoki soilik.

Profesional taldeak pertsona horrentzat egokitutako egitasmo bat egin beharko luke. Egitasmo horretan pasibitatetik ateratzeko epe motzera begira, helburuak jarri beharko lirатеke, gustuko izan ditzakeen gauzei heldu behar diegu eta beste gauza guztiak horien inguruan planifikatu. Helburuak jarri behar dira eta ondoren prozesua kontrolatu helburu horiek lor ditzaten. Arrakasta izan behar du, irakasgai batean ez bada, bestean. Arrakasta indibidual hori azpimarratu behar da, gainerrako ikaskideek egiten edo lortzen dutenarekin alderatu gabe. Beraz, irakasleek pertsona hori nondik hasi den eta nora iritsi den hartu behar dute kontuan. Erreferente nagusia notak izaten dira eta horren aurrean ezin ditugu begiak itxi, baina ongi neurtu behar dira. Irakasle taldeak ebaluatu egin behar du, ez kalifikatu, eta lagundu egin behar dio ikasleari. Tutoretza orduak erabil daitezke horretarako, tutoreak ez bailuke irakasle-instruktorea izan behar soilik, baizik eta hezitzailea.

Programa edo plangintza horrek arrakastarik lortzen ez badu, porrota irakaslearena izango da.

Bestalde, orientazio departamentuak ez luke lan egin behar soilik arazokak dituzten haurrekin, arazoei aurre hartu beharko lieke. Hori da benetan orientazioaren funtzioa. Ez da urte betean edo bi hilabetetan egiteko moduko lana, jarraikortasuna eskatzen du, emaitzak epe luzera jasoko ditugu eta orduan ikusiko dugu arrakastarik lortu dugun ala ez. Ikasleak motibazio faltaren eraginez prozesua utz dezake, baina profesionalak ez.


Pedagogok badakigu talde osoarekin egin behar dela lan. Pertsona jakin batzuekin landu behar diren alderdiak daude, baina arazoei aurre hartu nahi badiegu, taldearekin egin behar dugu lan. Motibazioa ikasle guztiei piztu behar zaie eta bosta ateratzen duena-

ri ere lagundu egin behar zaio, agian gehiago ere atera dezakeelako eta motibatuz gero, ziurrenik, lortuko duela. Agian pedagogoak ikasgelan sartu beharko lirатеke, ez eskolak ematera, baizik eta heztera, motibatuz. Tutoretza ere erabil daiteke baina ebaluazioa egiteko eta beste irakasleek zer dioten jakiteko erabiltzen da batez ere.

Beraz, nola saihestu eskola porrota? Ikaslearekin egoten, ardura batzuk jartzten eta prozesua kontrolatzen. Erakutsi behar zaizkien gauzak erakutsiz eta edukiak barnerratzeko zailtasunak badiutuzte, horretan lagunduz. Pertsona horiek gai direla sinetsi behar dugu. Irakasleok programazioak egiteko gai izan behar dugu, eskolak emateko gai, baina baita afektibitatea emateko gai ere. Alde horretatik guztiz profesionalak izan beharko genuke. •

**Pedagogok badakigu  
talde osoarekin egin  
behar dela lan.  
Pertsona jakin  
batzuekin landu behar  
diren alderdiak daude,  
baina arazoei aurre  
hartu nahi badiegu,  
taldearekin egin behar  
dugu lan. Motibazioa  
ikasle guztiei piztu  
behar zaie eta bosta  
ateratzen duenari ere  
lagundu egin behar  
zaio, agian gehiago ere  
atera dezakeelako eta  
motibatuz gero,  
ziurrenik, lortuko  
duela.**

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak


# Alegiazko errealitatea. Vianako ipuin liburua kaleratu dute

Nafarroa Oinez dela eta argitaratu duten "Alegiazko errealitatea. Vianako ipuin liburua" izeneko argitalpena hamasei ipuinek osatzen dute. Unai Esparza, Vianako liburuzaina da liburaren egilea. Hilabete oro ipuin saioak antolatzen ditu eta herriko hainbat kondaira, pasadizo, anekdota eta gertakizun kontakizun bihurtu ditu horretarako. Orain liburu batean bildu ditu horiek guztiak. Marrazkiak berriez, Jose Javier Aosenak dira.

Ipuinen kontakizunean familiak gidatzeko eta herriko aho tradizioa berreskuratzeko asmoz, gida didaktiko laburra prestatu dute argitalpena

osatzeko. Bertan, Esparzak, ipuinak kontatzeko espaziorik eta unerik egokienak zein diren, ipuinaren aukeraketa nola egin behar den, nola kontatu behar den, zein tonu erabili, erritmoa nola eraman, dramatizazioa nola egin behar den eta kontaketa nola bukatu behar den aipatzen ditu. Hurrei ahozko literatura transmititzearen beharra azpimarratu nahi izan du egileak lan horrekin.

Euskaraz eta gazteleraz argitaratu dute eta 15 euroren truke eskura daiteke Vianako liburudendan eta estancoan.



## Teknoskopia 2007 martxan da



Elhuyar Fundazioak, Innobasquek eta Zientziaren kutxaGuneak "Teknoskopia 2007" gazteentzako ideia-lehiaketa martxan jarri dute. Euskal Herriko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek har dezakete parte lehiaketan. Zientziaren Astearen barnean antolatu dute ekimena (azaroaren 5etik 11ra bitartean izango da) eta aurten aste horren ardatza Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) direnez, gai hori izango du oinarri Teknoskopiaren laugarren edizioak.

Parte-hartzaileek blog bat osatu beharko dute lauko taldeetan antolaturik, zientziaren eta teknologiaren inguruko gairen bat landu, eta horren inguruan eztabaida sortu beharko dute. Antolaztaileen esanetan, ekimenaren helburua gazteak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan murgiltzea da eta blog baten bidez gizartearentzat interesgarria den zientzia edo teknologia arloko gai baten inguruko eztabaida eta iritzi-ematea sustatzea.

Talde irabazleko kideek mp4 bana jasoko dute. [www.zientzia.net/teknozkopia](http://www.zientzia.net/teknozkopia) helbide elektronikoa aurki daiteke informazio gehiago.

# Curriculum berriaren dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak hezkuntza curriculum berriaren dekretua onartu du. 6-16 urte bitarteko eskolatze aldiari aplikatuko da curriculum berria eta beste batzuen artean hauek izango dira bere ezaugarriak: elebitasunaren aldeko apustua egingo du eta ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntza amaitzean euskaraz B2 maila izan dezaten du helburu. Era berean, zikloa amaitzean, ikasleen ebaluazioa irakasle talde baten esku geratuko da eta ordutegiari dagokionez, autonomia izango dute ikasleek beti ere, curriculumak eskatzen dituen gutxieneko orduak betetzen badituzte. Matematikari eta zientzietan ordu gehiago eskainiko zaizkie eta heziketa fisikorako gutxienekoak bi ordu eta erdi izatetik ordu eta erdi izatera pasa dira.

Azken alderdi hau gogor salatu dute heziketa fisikoko irakasleek eta aldeketa eskatu dute. Sohat-ek (Soin Heziketaren Aldeko Taldeak) Lehen Hez-

kuntzako heziketa fisikoko saioen % 40 eta Bigarren Hezkuntzako saioen % 37 gal daitezkeela jakinarazi du.

Zenbait hezkuntza eragileren kritikak ere jaso ditu curriculum berriak. Euskal Herriak Bere Eskolak iruzurtzat hartu du eta hezkuntza sistema nazionala izatera begira Euskal Herriak euskal curriculum propioa behar duela aldarrikatu dute. EHBek salatu du curriculum dekretua ez dela Euskal Herri osorako baliagarria, bere oinarria LOE lege espainiarra dela eta Espainiako Konstituzioaren baloreak ikasleek barneratu beharreko balore gisa aurkezten dituela.

Sortzen-Ikasbatuazek bere aldetik argi utzi nahi izan du EAEko curriculum dekretua eta euskal curriculum ez direla gauza bera. Ardatz arrotzak inposatzen dituela, euskara ez duela ardatz gisa hartzen eta euskal kultura garatzeko eta transmititzeko tresnarik eskain-

tzen ez duela salatu dute. Sortzen-Ikasbatuazek esan duenez, benetako euskal curriculum egiteko Euskal Herri osoko eskola eta hezkuntza eragileen partaidetza beharrezkoa da eta Euskal Herriko ikasle guztiei begira eraikitako planteamendu pedagogikoa egin behar da.

Bestela mintzatu da Ikastolen Elkarteak. Eusko Jaurlaritzaren curriculum norabide onean egindako urratsa eta ekarpena dela uste du. Ikastolek uste dute euskal curriculumak eta Eusko Jaurlaritzak adostutakoak ez dutela talarik egiten eta zenbait alderditan bat datozela esan dute. Dena den, Euskal Herri osorako curriculum egiteke dagoela nabarmendu dute eta curriculum ofiziala alde batera utzi gabe, beraien hautua euskal curriculumaren aldekoa dela azpimarratu nahi izan dute.

## Euskal Herriko Oinarrizko HEZKUNTZA AKORDIOA

Duela urtebete aurkeztu zen Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa. Orduetik, bere edukia ezagutarazten aritu dira eskualde eskualde eta egiteko horri jarraipena eman nahi diote ikasturte honetan.

Edozein ikastetxek, irakasle taldek, guraso elkartetan eta abarrek eskalaz bere hezigunean, herrian edota zentroan aurkezpena egingo da.

Horretarako, Nazio Eztatanda Guneakoeekin harremanetan jartzea besterik ez da behar, beraiei eskaera zehatza egingo da.

Harremanetarako: [idazkaritza@eztabaidagunea.org](mailto:idazkaritza@eztabaidagunea.org) edota 943 260 855 telefonoan.

Hezkuntza Akordioaren edukia ezagutu nahi izanez gero, bere web gunean ekura liteke: [www.naziogunea.net](http://www.naziogunea.net)



## Ikastaroak

\* **Ikastolak XXI. mendearen hasieran** **Noiz:** azaroaren 13an. **Non:** Deustuko Unibertsitateko Auditorioan. **Informazio gehiago:** Ikastolen Elkartearen eta Partaiden.

\* **XXI. jardunaldi pedagogikoa** **Noiz:** azaroaren 7an. **Non:** Barakaldoko Clara Campoamor aretoan. **Informazio gehiago:** Barakaldoko Berritzegunean.

\* **VIII. Psikomotritate Praktikari buruzko jardunaldiak** **Noiz:** azaroaren 9tik azaroaren 11ra **Non:** Gasteizko Europa Jauregian **Informazio gehiago:** 943 769 033 telefono zenbakian eta [info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es) helbide elektronikoan.

# Bagoaz Suomira, bertako Hezkuntza Sistema ezagutzeko gogoz

Egun hauetan Suomira joango gara bertako hezkuntza sistemaren arrakasta ezagutzeko xedez. Urriaren 31 eta azaroaren 4a bitartean bertan izango gara hainbat prestakuntza saiotan. Sistema bere orokortasunean ezagutzeko hitzaldiak izango ditugu eta eskolak ere bisitatuko ditugu, esperientzia sakontzeko helburuz.

Finlandia 5.200.000 biztanle dituen herrialdea da. Kohesio eta homogeneitate sozial handia dago herritarren artean. Munduko alfabetatze tasarik altue-

na du (% 100). Hezkuntzari dagokionez, bertako hezkuntza sistema aski ezaguna da mundu guztian, PISA delakoarengatik batik bat. Azterketa horrek, irakurmena, matematika eta zientzietako gaitasuna neurtzen ditu. Orain arteko emaitzak ikusita, Finlandiako eskola sistemak lortu ditu onenak. Eta ez hori bakarrik; beste herrialdeekin konparatuta, ikasleen artean ekitate gehien dagoen herrialdea da. Bere arrakastaren ezaugarrien artean, besteak beste, ikasleen maila akademiko

altua, berdintasuna eta ekitatea lantzeko modua, eskola porrot baxua, gurasoen partehartzea, hezkuntza eskumenean dezentralizazioa, ikasleenganako etengabeko laguntza, talde txikiak, eredu inklusiboa, hezkuntzaren eta hezitzaileen prestigioa... bezalakoak ditugu.

Bidaia honen partaide kopurua mugatua izan da antolakuntza beharrei erantzunez, eta guztira 41 pertsona bertaratuko gara, bi egunetako prestakuntza plana jasotzeko asmoz.



## Euskal Herria-Suomi elkarte

Hasieratik, bidaia antolatzeko elkarte honekin izan gara harremanetan. Elkarte Euskal Herrian bizi diren suomitar eta euskaldunen artean osatua dago. Hamabost kide inguruk osatzen dute eta aberasgarria ikusi dugu beraiekin halako esperientzia berezia partekatzea. Hortaz, gurekin izango dira Helsinkin itzultzaile lanetan.

## Timo Riiho hizkuntzalariarekin solasaldia

Timo Riiho (1950) hizkuntzalari, Helsinkiko Unibertsitateko katedrati-koa linguistika Ibero-erromanikoan. Suomitarren egoera linguistikoa ongi ezagutzen du, baita euskararen egoera linguistikoa ere. Duela 30 urte, A-rantzazun izan zen euskara ikasten Txillardegia eta beste batzuen artean. Hizkuntza berreskuratzeko bidean hezkuntzaren egitekoen inguruan mintzatuko da.


<b>Urriak 31 asteazkena</b>	Joaneko bidaia. Bilbo-(Paris)-Helsinki
<b>Azaroak 1 osteguna</b>	* Hitzaldia: Suomiko Hezkuntza Sistemara hurbipena * Suomenlinna irlako eskolara bisita
<b>Azaroak 2 ostirala</b>	* Espooko eta Vantaako eskoletara bisitak * Hitzaldia: Berdintasuna, ekitatea eta kalitatea. Finlandiako hezkuntzaren arrakastaren faktoreen azterketa * Timo Riiho hizkuntzalariarekin solasaldia: Hezkuntzaren eragina hizkuntzaren garapenean
<b>Azaroak 3 larunbata</b>	Libre (bertan jaieguna da)
<b>Azaroak 4 igandea</b>	Itzulerako bidaia. Helsinki-(Paris)-Bilbo

# argitalpenak



**Ilunorduak eta argilaurdenak**  
Joxantonio Ormazabal  
ELKAR

Leiho batzuetatik argia sartzen da eta beste batzuetatik iluna. Tristura eta itxaropena, bi gauzak aurkituko ditu atetik barrura sartzen denak. Haurrarentzat eta helduentzat, atek zabalik ditu etxe honek. Merezi du ikustea. Gauzez eta egunez irekita dago. Elena Odriozola marrazkilariak jantzi ditu hitzak. •



**Gurpil gainean nabil**  
Xabier Mendiguren Elizegi  
GILTZA-EDEBE

Istorioren zorrotz honetan Mikelen abentura bat kontatzen zaigu, gurpil gainetik, mutil elbarri baten ikuspegiatik. Mikelentzat, bere jarlekua formula 1eko bolidoa da, hainbat emozio sentiarazten dizkiona. Bere ferrari txikia lagunduela, Schumachertxiki horrek aurre egingo die eguneroko gorabeheri eta zailtasunei, kikildu gabe. •



**Arbela**  
39. alea  
BARAKALDOKO BERRITZEGUNEA  
Aldizkariaren 39. ale hau, gaitasunen inguruan mintzatuz hasten da. Gatzak eta bizikidetzak, Hezkuntzaren lege organikoa, zinema tresna didaktikoa gisa edota familia berrien berri ematen du orrialdeetan zehar. Ondoren, euren ikastetxe zehatzetako ekimenak eta Barakaldo hiri hezitzailearen berri ematen du. •




**Sistematizazioaren abentura**  
Alboan, Hegoa eta Pedro Arrupe  
GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA

Herritarren parte-hartzeari buruzko hamar esperientzien sistematizazioan erabilitako erramintzen eta sistematizazio-prozesuen jarraipenetik ateratako emaitzak jasotzen ditu gida honek. Esperientzia horiek aztertuz eta berrikusiz hauetatik ikasitakoak landu eta hurrengo esperientzietarako jarraibideak eta irizpideak ematen ditu, malgutasunari eta sormenari leku handia utziz. •



**Carlota-ren egunkari urdina**  
Gemma Lienas  
EREIN

Carlota-ren egunkari berri honek gure gizartearen ahulena direnak dituzte gogoan, eta horien artean ume eta gazteak bereziki. Beren aurka gurean erabili ohi den indarkeriak kezkatzen du Carlota. Familiatik hasi eta lagunarteko igaro, handik eskolara eta bikoteen arteko harremanetara, ez da zaila generoko indarkeriarekin topo egitea hantxe eta hemen. •




**Filosofia. Batxilergoko 1. maila**  
Zenbaiten artean  
GILTZA

Liburu honetan garatzen den ideia nagusia Filosofia zer den argitzea da eta, horregatik, atal bat du haren sorrera (Mediterraneoan) aztertzeko. Gizakia eta bere unibertso sinbolikoa, arrazoi-tzea eta argudiatzea, giza ezagutza, balio moralak, etika eta estetika, giza ekin-tza eta gizarteak: gizabanakoa, demokrazia eta utopia eta beste hainbat gai ere aztertzen ditu orrialde hauetan. •

# ... nora joango gara?

## OIASO ERROMATAR MUSEOA Erromatar hauek erotuta daude!



Erotuta ala ez, erromatarrek Euskal Herrian bizi izan ziren. I. mendean heldu ziren Oiassora eta gaur egun Oiartzunen dauden Aiako Harriko Arditurri meatzetatik zilarra ateratzen zuten. Oiasso, portua zuen hiria zen eta hiri erromatar guztien moduan, bere foroa edota termak zituen. Ikasleei gure historiaren zati hori ezagutzeko aukera ematen die Oiasso museoak. Hezkuntza zerbitzuak hainbat bisita dinamizatu eta tailer eskaintzen ditu eta "Erromatar hauek erotuta daude!" bisita egin dugu guk ikasle talde batekin.

Aiako Lardizabal herri eskolako 4. mailako haurrak izan dira Oiasson eta hasieratik erakutsi dute interes handia bertan ikusi eta entzun duten guztiaren aurrean. Hamazazpi ikaslek eta bi irakaslek osatutako taldearekin egin dugu bisita.

Hasteko, erromatar izenak jarri dituzte. Horrela, kanpoan Iker, Alaitz, Nagore edota Joseba zirenak, Augusto, Venus, Tita eta Marcus izan dira museoetik atera bitartean.

Ordu laurden irauten duen bideoaren bidez erakutsi diete Oiasson bizitza nolakoa zen; hiri erromatarra portuaren inguruan sortu zela, plazan edo foroan jai publikoak edota hitzaldi politikoak egiten zituztela, termak erabil-

tzen zituztela, hurrek tortoloseara jolasten zutela, dietaren oinarria arraina izan arren okelik ere jaten zutela, fruta postre moduan jaten zutela...

Ondoren, Oiasson aurkitutako zenbait objektu eta tresna ikusi dituzte: duela bi mila urteko egurra eta sokak esaterako. Pentsaezina dirudi, baina usteldu gabe, egoera onean, iritsi zaizkigu. Txanponak ere ikusi dituzte: bat Augustoren garaikoa, K.a. 27. urtekoa, anforak, amuak, hezurak (melokotoi edota gerezienak), intxaur azalak, kati luak, orraziak, bitxiak...

Itsasontziz ere egin dute bidaiara geroago. Hiru dimentsiotan ikusteko berraketaurrekoak jantzi eta itsasuntzia urrutiko agintearekin gidatuz, erromatarre-

kin batera bidaiara egin dute itsasoz Londrestik Oiassora.

Geroago esan die museoeko hezitzaileak Oiassok jarri ziola izena Bidasoa ibaiari. Hain zuzen ere, Via ad Oiassonem izenetik dator Bidasoa izena, museoan ikus daitekeenaren arabera. Antzina, inguru guztia Oiasso zela pentsatzen dute eta inguruko izen asko hortik etorri zirela: La Bella Easo (Donostia), Oarsoaldea (eskualdearen izena), Oiartzun, Villanueva de Olearso (gaur egungo Errenteria)...

Eta oraingoan ez dute ikusi, baina nahi izanez gero, Ama Xantalen ermita eta bere aztarnategia ere bisita daitezke. Hilerria topatu dute bertan, 106 hilobi, eta horietako bat museoan dute. E-







Erromatarrek hildakoak errausten zituzten eta errautsak eta hezur pusketak ikus daitezke.

Oiasso hamar hektarea inguruko hiria zen. Eta gaur egun, hiri hura izandakoaren zati bat ikus daiteke, baina gauza asko daude oraindik atera gabe. Termetan indusketak egin dituzte, baina oraindik ezin dira bisitatu. Lanek aurrera jarraitzen dute eta denborak aurrera egin ahala, Oiasso hobeto ezagutzeko modua izango dugu. •

## OIASSO ERROMATAR MUSEOA

Eskoleta, 1  
20302 IRUN (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 639 353  
info-oiassomuseoa@irun.org  
www.oiasso.com



### Oharrak:

- Bisitak hiru hizkuntzetan egin daitezke: euskara, gaztelera eta frantsesa.
- Programak: hezkuntza formala, hezkuntza ez formala, familiak, helduak eta behar bereziak dituzten taldeak.
- Prezioak. Zerbitzuaren arabera aldatzen dira:
  - Museora bisita gidatua: 5 euro. Ikasleek: 4 euro.
  - Ama Xantalen ermita bisitatzea: 2 euro. Ikasleek: 1,5 euro.
  - Tailerrak: 2,5 euro.
  - Tailerra eta museoa: 5,5 euro.

### Hezkuntza zerbitzua

#### Ikasleentzako bisita gidatu dinamizatuak

Erromatar hauek erotuta daude!

- Norentzat: Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.
- Iraupena: 1 h. 30 min.
- Helburuak: ikasleak erromatar garaira gerturatzea.
- Erabilera arlo nagusiak: Inguruaren ezaguera / Arte Hezkuntza.

Denbora makina

- Norentzat: DBHko ikasleentzat.
- Iraupena: museoa 1 h. 30 min. / museoa + Ama Xantalen ermita 2 h.
- Helburuak: Irun hiria Oiassorekin identifikatzea, arkeologi pieza ezberdinen bidez.
- Erabilera arlo nagusiak: Gizarte Zientziak / Geografia eta Historia.

Oiasso galduaren bila

- Norentzat: Batxilergoko ikasleentzat.
- Iraupena: museoa 1 h. 30 min. / museoa + Ama Xantalen ermita 2 h.
- Helburuak: Arkeologoen lana ezagutaraztea. Erromatar gizarte, ekonomia, politika eta bizimoduaren oinarritzko alderdietara hurbiltzea.
- Erabilera arlo nagusiak: Historia, Latina, Artearen Historia.

#### Animazio tailerrak

Alea jacta est

Merkurio jainkoa lagun harturik, lau hiri erromatarretatik lehorrez eta itsasoz abiatuta, Oiassorainoko bidaia egingo dute. Taldeek zenbait proba gainditu beharko dituzte helmugara iristeko. Bidean, antzinateko mundura hurbilduko dira eta garai hartako usadio eta eguneroko ohitura batzuk ezagutuko dituzte.

- Norentzat: Ikastetxeak, aisialdi taldeak, familiak, helduen taldeak eta elkarteak.
- Adina: 6 urtetik aurrera
- Iraupena: 1 h. 15 min.
- Aplikazio arlo nagusiak: Historia, Geografia, Artearen historia.

Museoko eskolak: belaunaldi topaketa

Museoa eskola zen lehen eta duela 50 urte errealitate hura bizi izan zuten helduen eta gaur egungo haurren arteko topaketak egiten dituzte.

- Erabilera arlo nagusiak: Historia, Baloreen hezkuntza.

# atzeko atetik

Dj BULL

Dj-a



## Ikasle kataluniar bat Euskal Herrian Dj

Aupa! Ni Bull naiz. Nire izena Jon da. Jon, Cambrils-en (Tarragona) jaio zen eta Dj.Bull, Euskal Herrian.

Pertsona bakarra, bi nortasun.

Katalunian jaio nintzen, baina hala ere EUSKARAZ egin nituen lehenengo hitzak. Nire ama andereñoa zen eta Andoingo ikastola sortu zuen beste irakasle batzuekin batera. Katalunian hamaka urte egin nituen eta uda hartan Euskal Herrira etorri nintzen bizitzera. Ez nekien EUSKARAZ hitz egiten, baina hala ere hurrengo ikasturtea EUSKARAZ egin nuen oso-osorik. Musika-rekin dezente ikasi nuen EUSKARAZ, euskal taldeak entzunez. Geroago, hogeit ureterekin tabernetara joaten nintzenean, musika grabatzen nuen. Eta hainbeste musika entzun eta grabatu ondoren, Dj. izateko gogoa piztu zitzaidan. Izena behar nuen eta bat aukeratzea ez zen zaila izan. Hamasei urte nituela, AEK Egun batera joan nintzen. Orduan, ez nuen buruan ilerik eta lagun batek Bull ezizena jarri zidan.

Orduan jaio zen Dj.Bull. Irurakoa

naiz eta Tolosako taberna batean hasi nintzen nere lehen saioak egiten. Gero lan-eremua zabaltzen joan zen: txoznak, ezkontzak, lagunen afariak... Ikasturte amaierako festetan ere, IKAS-TOLETATIK deitzen zidaten.

Zalantzarik ez, gazte jendea da publikorik onena, lotsa gutxi eta parrandarako erraztasuna duelako.

Eta horrela pasatzen dut urtea, festarik-festa musika jartzen.

Nire istorioa amaitzeko, ikastola batean gertatutako anekdota kontatuko dizuet:

Ikastola batera joan behar nuen, haurtzaindegi batera hain zuzen ere. Obelix-en mozorroa jarrita joan nintzen ikasleek gustuko izango zutelakoa baina haur guztiak negarrez hasi ziren ni ikusita. Segituan kendu nuen mozorroa eta ederki pasa genuen bai haurrek eta baita nik ere. Kalejira batzuk eta poz-pezik etxera. Ja, ja, ja...

Kantatzen ez duenak, zorionik ez du. Eta ahal bada, euskaraz kanta dezala.

2006ko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gastu militarra nahikoa litzateke Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzaren oinarritzko beharrak asetzeko, eta 500 milioi euro sobratuko lirateke gainera.

Iturria: Berria egunkaria (2006-10-05)



MIHILUZE mahai jolasa



**Jolas ezazu  
telebistako  
programan bezala**  
eta erakutsi benetan  
MIHILUZEA zarela

Ba al dakizu nola esaten den  
leloa Ultzaman?

Bixkor-bixkorra al zara galderak  
erantzuten?

Mihiluzea zarela baina ez zara inoiz  
telebistako programan parte hartzera  
ausartu?

**33€**

**ARGIAren  
harpidedunek  
%15eko  
deskontua**

**Eskaerak**  
943 37 15 45  
denda@argia.com  
www.argia.com/denda



# IGARKIZUN LEHIAKETA

Badator berriz ere igarkizun lehiaketa eta parte hartzea oso erraza da, sortu nahi adina igarkizun taldeka edo bakar-karka, eta bidali. Urriaren 29tik azaroaren 20ra izango duzue aukera. Hona hemen iaizko irabazlea, Donostiako Aitor ikastolatik bidalia:

*Berdea nire kolorea  
negua nire urtaroa  
tunel bikoitza nire bizilekua,  
txikitari nirekin jolasten duzue,  
handitan ez hainbeste.*

Irabazleak bi eguneko egonaldi bat irabaziko du bere gelakide guztientzat aterpetxe batean. Honez gain, parte hartzaile guztien artean 30 sari ezberdin zozketatuko dira, CD-ROM-ak, mahai jolasak...

Parte hartu nahi baduzu sartu honako helbide elektronikoan:  
[www.aisia.net](http://www.aisia.net)

